2017 MEMORIAREN AURKIBIDEA

1. SARRERA

1.1. Zer da Helduen Hitza? ..... …… 3

1.2. Zein da gure oinarria eta zer helburu ditugu?..... 4

1.3. Zer antolamendu dugu eta nola funtzionatzen dugu hori guztia lortzeko

1.3.1. Bazkideen Batzarra 5

1.3.2. Zuzendaritza Batzordea 6

1.3.3. Lan Batzordeak 7

2. 2017an egindako jarduerak

2. 1. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza: hizketaldi-hitzaldiak 8

2. 2. Euskararen ikaskuntza 12

2. 3. Hitzaldiak euskaraz ……..... ……13

2. 4. Mendi Ibiliak ..... ….16

2. 5. Ibilaldiak –Ibilbide osasungarriak.....26

2. 6. Literatura Tertuliak ..... …28

2. 7. Ostegunetako Foroa ..... .30

2. 8. Kultura irteerak 33

2. 9. Musika eta Kantu tailerra 42

2.10. Antzerki tailerra ..... ……43

2.11. Helduen Hitza Berriak aldizkaria.....45

2.12. Helduen Hitza webgunea…….46

2.13. V. Literatura Lehiaketa 2017 47

3. BESTE JARDUERA BATZUK

3.1. 2016-17 Ikasturte amaiera..... .48

3.2. 2017-18 Ikasturte hasiera…… ……..51

4. HARREMANAK UDALAREKIN

4.1. +55 Programa..... ….52

4.2. Kontseilu Sektoriala: Gizarte Ekintza eta Mugikortasuna 52

5. LANKIDETZA BESTE ERAKUNDE ETA ORGANIZAZIOEKIN

5.1. Gure gidak San Telmo Museoan.....53

5.2. EHUko Udako Ikastaroak.....55

5.3.Boluntarioak 56

6. ONDORIOAK 57

7. ESKERTZAK ..... …….59

1. SARRERA

2018. urtearen hasieran bagaude ere, amaitu berria den 2017. urtean jarri nahi dugu gure begirada kritikoa urteko memoria egiteko. Eta ohikoa dugun gogoeta eta azterketa egiteko ahaleginetik abiatuta egingo dugu, geure buruari galdera hauek eginez: *Zer egin dugu?, Zergatik egin dugu?, Nola egin dugu?.* Baina, horrez gainera, Helduen Hitzako bazkide garen adinekooi ikasturte horrek eman dizkigun balioetan ere jarri nahi dugu arreta.

Urteko Memoria bat balio handiko tresna da, izan ere, iraganari egiten zaion begiratua etorkizunerako tresna baita: a) gogoeta egiteko eta hobetzeko, hau da: gure jarduna ***ebaluatzeko****; b) etorkizuneko bazkideek Helduen Hitza zer den jakin dezaten, hau da: elkarteari buruzko* ***informazioa*** *emateko; c) erakundeek, zehazki gure hiriko udalak, Donostiako Udalak, alegia, beren laguntza ematen jarrai dezaten diru laguntzen bitartez, eta, bereziki, hark utzitako lokalak gure jarduerarako erabiltzeko aukera eskainiz, eta egiaztatu dezaten zein erabilgarria den gure jarduna, hau da: laguntza hori zein egokia den* ***justifikatzeko****...*

Has dezagun, hortaz, gure gogoeta eta urteko ebaluazioa… Eta has gaitezen, halaber, guregana hurbiltzen direnei informazioa ematen. Horretarako, Helduen Hitza zer den laburtzen hasiko gara, eta, orobat, gure jarduna zertan oinarritzen dugun eta nola antolatzen garen eta funtzionatzen dugun azalduko dugu.

1.1. Zer da Helduen Hitza, nor gara eta zenbat gara?

Helduen Hitza irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 55 urtetik gorako adinekoentzat osatua. 2003. urtean sortu zen, Matia Fundazioaren Esperientziaren Eskolan ikastaro bat egin eta gero, 38 lagunek elkartea sortzea erabaki zutenean. Gaur egun, 460 baino gehiago gara.


Adineko pertsonen belaunaldi berri bat osatzen zuten gizon-emakume horiek konturatu ziren, esperientziaren eskolan ikastaro bat amaitu ondoren, BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZA PROZESU ETENGABEAn parte hartzen jarraitu behar zutela eta prozesu hori zabaldu behar zela, zahartze handiagoa eta hobea edukitzeko, aktiboa, osasungarria, kulturala eta gure gizartean parte hartzen jarraitzeko, ezagutzak, ahalmenak eta jarrerak hobetzeko helburuarekin eta ikuspegi pertsonal, zibiko eta sozialarekin.

Adineko pertsonak modu aktiboan parte hartu nahi dugu bizi garen gizartean eta guk geuk osatu ditugun elkarteetan parte hartze aktiboa izan dezagun lan egin nahi dugu, eta horretan dihardugu; berebat, lankidetzarako, sustapenerako eta gure jardunetan nagusi izen behar duten balioak garatzeko eragile izan nahi dugu. Azken batean, gizarte gizatiarragoa, bidezkoagoa, parte hartze handiagokoa eta gaur egungoa bezain baztertzailea izango ez dena sortzeko zereginean lagundu nahi dugu. Eskerrak gurekin jarraitzen dutenei, eta baita jarraitzen ez dutenei ere.

Gure Estatutuetan adierazten denaren arabera: "*Elkartearen helburuak, bertako Estatutuetan adierazten den bezala, honako hauek dira: adineko pertsonen banakako gaitasunak zein taldekoak ahal beste garatzea helburu duten ekimen guztiei ekitea eta horiek gauzatzea; horien bazterketa saihestea eta gizartean parte har dezaten laguntzea, eta, ondorioz, adinekoek gizartean betetzen duten zereginari balio handiagoa ematea*".

Orduko hartan dagoeneko jarduera hauen aldeko apustua egin zen helburu horietara iristeko: *Adinekoen Prestakuntza eta Etengabeko Ikaskuntza, Euskararen ikaskuntza, Ostegunetako Foroa, Boluntariotza, Mendi-ibiliak, Irteera Kulturalak, Buletin-Aldizkaria* eta *Literatura tertuliak.* Horiez gainera, gaur egun beste jarduera hauek egiteko aukera ere badago: *Hitzaldiak Euskaraz, Ibilaldiak, Musika eta Kantu Tailerra, Antzerki Tailerra* eta *Literatura Lehiaketa.* Modu sistematikoan eta egituratuan egiten diren jarduera horiez gainera, beste hainbat jarduera daude, unean unean egiten direnak; Urteko Memoria honetan ere emango dugu horien berri.

Eta zenbat gara? Bazkide kopuruari dagokionez, elkarteak izan duen bilakaera azaltzen da grafiko honetan:



Argi dago, hortaz, azken urteotan etenik gabe eta luze handitu dela elkartea, elkarteak ondo jardun duelako, bai zein erakargarria den erakusteko moduan, bai 55 urtetik gorakoen taldeak modu positiboan baloratzen dituelako jarduera guztiak, bere zahartzearen alternatiba osasungarria baitira.

Hazkunde horrek, epe ertainera, bestelako arazoak ekar ditzake (espazioa lokaletan, kudeaketaren konplexutasuna, etab.); ondo aztertu beharko dira, eta irtenbideak eta soluzioak eman beharko zaizkie sortzen diren arazoei, hala egokitzen bada.

1.2. Zein da gure oinarria eta zer helburu ditugu?

Galdera horien erantzunaren bila, urtez urte esaten ari garen moduan, ***"Zahartze Aktiboaren Liburu Zurira"*** jo behar dugu. Aipatutako Liburu hori Munduko Osasun Erakundeak osatu eta argitaratu zuen 2012an, eta horretatik

abiatuta osatu eta argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak ***"2015-2020 Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia"*** (Enplegu eta Gizarte Politika Saila, 2015).

Helduen Hitzari dagokionez, *Zahartze Aktiboa* bultzatzen eta gauzatzen dugu, eta Elkartearen balioen alde lan egin dugu orain arte eta horretan jarraitu nahi dugu, bat baitatoz Zahartze Aktiboaren balioekin. Era horretara, zahartze AKTIBOA, DUINA, AUTONOMOA, PARTE HARTZAILEA eta SOLIDARIOA bultzatuko duen eta ahal bezain beste praktikara eramango duen Helduen Hitza nahi dugu, eta horren alde egiten dugu, gai horretan erantzukizuna duten erakundeen laguntzarekin, noski.

Hori lortzeko, aipatutako balioak indartzen duten jarduerak diseinatu, antolatu, proposatu eta egiten ditugu, hiru ardatz hauen inguruan:

- Garapen **EMOZIONAL** OSASUNGARRIA
- Garapen **MENTAL** OSASUNGARRIA
- Garapen **FISIKO** OSASUNGARRIA

1.3. Zer antolamendu dugu eta nola funtzionatzen dugu hori guztia lortzeko?

Honako hauek dira elkarte gisa ditugun helburuak lortzeko Funtzionamendu Organoak:

- Bazkideen Batzarra.
- Zuzendaritza Batzordea.
- Lan Batzordeak

1.3.1. Bazkideen Batzarra da, Estatutuen arabera, *Elkartearen Organo Gorena, eta bazkide guztiek osatzen dute, haiek beren nahia adierazteko organoa izanik.* Esan bezala, agiri hau idazteko unean, 465 bazkide gaude guztira Elkartean izena emanda. Baina kopuru hori egunetik egunera ari da aldatzen. Eta jardueretan parte hartzen duten bazkideen kopurua ere aldatu egiten da, modu berean.

1.3.2. Zuzendaritza Batzordea, Estatutuen arabera, *ordezkaritza organo bat da, eta Elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzen ditu, Batzar Nagusiaren xedapenen eta zuzentarauen arabera.*

Zuzendaritza Batzordea hamar lagunek osatzen dute gaur egun, Estatutuetan adierazten denari jarraituz: Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria, Diruzaina eta sei batzordekide edo bokal. Azken horiek dira Elkartearen jarduerak prestatu, aurrera eraman eta ebaluatzen dituzten Lan Batzordeetako arduradunak. Lan Batzordeetako arduraduna Zuzendaritza Batzordeko kide denez, lana hobeto koordinatzea eta ebaluatzea lortzen da. Apirilaren 5eko Ohiko Batzarrean bertako Lehendakari Pili Perea Elías jaunak dimisioa aurkeztu zuen, osasun arazoak direla eta. Gure eskerrik beroena bere lanagatik eta adeitasunagatik.

Urriaren 4ko Ohiz Kanpoko Batzarrean honako kide hauek utzi zuten, beren borondatez, Zuzendaritza, agintaldia bukatu eta gero:

- Jarduneko Lehendakaria: *Julia Arrieta Larrañaga*
- Idazkaria: *Maria Baldomera Sanchez Sanchez*
- Diruzaina: *Antxon Irizar Peña, jardunean, Juan de Blas Irazustaren dimisioaren ondorioz.*
- Bokala: *José Manuel Susperregui Martin*
- Bokala: *Mari Carmen Zarate Barrero*
- Bokala Izaskun Mendikute Imaz
- Bokala: Jon Puy Mariezkurrena

Eta agintaldia amaitu arte jarraituko zuten:

- Bokala: *Juan Ignacio Aizpurua Arrizabalaga*
- Bokala: *María Victoria Osoro León*

Irten zen Zuzendaritza Batzordearen proposamenez, Batzarrari aurkeztu zitzaien Zuzendaritza Batzordean sartuko ziren pertsonak eta aho batez hautatu ziren Batzarrean. Hortaz, honako kide hauek osatuko dute gaur egungo Zuzendaritza Batzordea:

- LEHENDAKARIA: *Juan Ignacio Aizpurua Arrizabalaga*
- LEHENDAKARIORDEA: *Luis Felipe Hernandez*
- DIRUZAINA: *Jesús Goienetxe Bilbao*
- IDAZKARIA: *Palmira Marinas*
- Ikaskuntza bizitza osoan zehar atalaren BOKAL arduraduna: José Luis Sansinenea



- Komunikazioa atalaren BOKAL arduraduna (Aldizkaria-Webgunea): Andrés Acosta
- Beste jarduera batzuk atalaren BOKAL arduraduna: *Joaquin Mendia*
- Irteera Kulturalak atalaren BOKAL arduraduna: *María Victoria Osoro León*
- Euskara atalaren BOKAL arduraduna: *Eva Esnal*
- Mendi-ibiliak atalaren BOKAL arduraduna: *Anttón Arruti*

Zuzendaritza Batzordea hilabetean behin elkartu ohi da.

Urriaren 4ko Batzarrean onartu bezala, Elkartearen Batzordea berritu egin da, eta memoria honetan adierazten den moduan gelditu da osatuta. Berrikuntza sakona izan da, 8 pertsona berri sartu baitira. Guztiek dute gogo handia lan egiteko, ekarpenak egiteko eta baita ikasteko ere.

Kudeaketa ere berritu nahi dugu. Horretarako, gure funtzionamendu sistema berritzea pentsatzen ari gara, arinagoak eta eraginkorragoak izateko, baita kudeaketa ekonomikoari dagokionez ere, eta kanpoko aholkularitza batean oinarrituko gara, azken Batzarrean adierazi bezala; era horretara, sistema profesional eta jarraitzaileago batekin egingo da kudeaketa, Elkartearen onerako.

Ikasturte berri honetan bazkideen proposamenak eta proiektu sendoak espero ditugu, eta Batzordera bidaltzea eskatzen dizuegu, mesedez; gogo onez aztertuko ditugu, Batzarrean adierazi bezala, gure taldeak ahalmen handia duela uste baitugu, eta ezin dugu ez ikusiarena egin. Era horretara, proposamenak onartu eta garatu ahala emango dizuegu horien berri.

1.3.3. Lan Batzordeak gehienera ere 10 lagunek osatu ohi dituzte, premien arabera, eta hilean behin elkartzen dira. Bazkide gehien eta/edo aurrekontu handiagoa duten jarduerak kudeatzen dituzten Arduradunak Zuzendaritza Batzordeko bokal izaten dira. Era askotako lanak egiten badituzte ere, oro har, honako hauek dira bete behar dituzten zereginak: egitarauak prestatzea, kudeatzea, ebaluatzea, kanpoko hizlariak kontratatzea, diruzainarekin koordinatzea ordainketak egiteko, halakorik balego... eta, batez ere, Jardueraren edo Jardueren Bokal Arduradunen bitartez, zubi lana egitea Zuzendaritza Batzordearekin, koordinatzeko eta informazio trukea egiteko.

2. 2017an EGINDAKO JARDUERAK

2.1. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza: Hizketaldi-Hitzaldiak

Arduraduna: Jose Luis Sansinenea

Batzordeko kideak: Mari Carmen Zarate, Begoña Maneiro, Juan Mari Pérez, Marivi Osoro, Miguel Sagüés, Mikel Arana, Ramón Leturiondo.

2017. urtean zehar, aurreko urteetan bezala, hainbat hitzaldi antolatu dira gure bazkideei askotariko prestakuntza eta prestakuntza atsegina eskaintzen ahalegintzeko helburuaren barruan.

Topalekun egindako lanaz gainera, gainerako hitzaldi guztiak Okendo Kultur Etxean egin dira, Anoetako estadioa berritzeko lanen ondorioz. Ahaleginak egingo ditugu hasieran behin behineko egoera hori behin betikoa izan dadin aurrerantzean, kokaleku horrek ahalmen egokia baitu guretzat (160 leku).

Aurten berriro ere, bi ezaugarri izan dira nabarmentzekoak atal honetan, askotariko gaiak eta hizlariak, eta, ohiko hizlariez gain, gure forura hizlari berriak ekartzeko ahalegina. Hizlari berrietako batzuk aipatzearrean, 2017. urtean honako hizlari berri hauek parte hartu dute: Lurdes Herrasti, Asier Blas, Nicanor Ursua, Iñaki Olaizola, Jose Mª Aizega, Peio Monteano, Pedro Luis Uriarte, Koro Garmendia, Ivan Jimenez, Ander Izagirre, Cristina Monge, Carlos Rilova, Jose Eladio Santacara, etab. Hizlari berriak erakartzeko bidetik jarraitzea da gure asmoa.

Kasu batean izan ezik, gainerako hizlari gonbidatu guztiek baiezko erantzuna eman diote gure gonbidapenari. Azpimarratzekoa da nolako sorpresa hartu duten hizlari askok parte hartzearekin, ez baitaude ohituta gure entzuleria bezain talde oparoa edukitzen. Pentsatzen dugu horrek zerikusi handia izan duela gureganako jarrera positibo horretan.

Aurreko urteetan bezala, baterako hitzaldiak egin ditugu, hitzaldiak bi areto desberdinetan errepikatu beharrean. Zenbait hizlariren denborarik eza, horien ospea edo urrun bizitzea izan dira horretarako arrazoi nagusiak. Oraingoz baztertu egin

dugu Donostiatik urrun dauden hizlarientzat Internet bidezko bideohitzaldiak emateko aukera.

2017ko 4. hiruhilekoari buruzko ebaluazioaren datuak (2017-2018 ikasturtearen 1. Hiruhilekoa)

2017/2018 ikasturtean izena eman dutenak, guztira: 246 pertsona

2017ko 4. hiruhilekoan 2.593 lagunek parte hartu zuten, hau da, 146 pertsona eguneko, izena eman dutenen % 59.

Jasotako balorazio galdetegiak: 68. Okendo KEan 46 eta Topalekun 22.

Hizlariei buruzko batez besteko balorazioa 8,17koa izan da, gehienekoa 10 izanik; balorazio handiena 9,10 izan da eta txikiena 7,00.
Gaiari buruzko batez besteko balorazioa 8,05ekoa izan da, gehienekoa 10 izanik; balorazio handiena 8,73 izan da eta txikiena 7,17.
Hitzaldien programazioa honako izan da (Okendoko egutegia):

2017ko 1. HIRUHILEKOKO PROGRAMAZIOA

FECHA DATA	TEMAS/GAIAK	PONENTES/HIZLARIAK	
17-1-10	**RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA**	**Lurdes Herrasti**	**Aranzadiko antropologia saileko kidea**
17-1-11	**RETOS DEL COOPERATIVISMO EN EL SIGLO XXI**	**Iñaki Dorronsoro**	**Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria**
17-1-17	**¿HAN CAMBIADO REALMENTE LAS RECOMENDACIONES DIETÉTICAS EN EL SIGLO XXI?**	**Teresa Gaztañaga**	**Medikua Nutrizionista**
17-1-18	**LA EMIGRACIÓN Y LA ULTRA DERECHA HOY EN DÌA EN EUROPA**	**Asier Blas**	**Doktorea Zientzia Politikoan eta Administrazioan**
17-1-24	**HISTORIA DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS**	**Urko Barros**	**Historialaria**
17-1-25	**HISTORIA DESDE 1945 HASTA NUESTROS**	**Urko Barros**	**Historialaria**
17-1-31	**EL PENSAMIENTO DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS**	**Nicanor Ursua**	**Filosofiako Katedraduna**
17-2-1	**EL PENSAMIENTO DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS**	**Nicanor Ursua**	**Filosofiako Katedraduna**
17-2-7	**EL ARTE DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS**	**Txemi Valdecantos**	**Arteko irakaslea**
17-2-8	**EL ARTE DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS**	**Txemi Valdecantos**	**Arteko irakaslea**
17-2-14	**LOS PUERTOS DE SAN SEBASTIÁN**	**Javier Mª Sada**	**Donostiako kronikaria**
17-2-15	**VIVIMOS BIEN MORIMOS MAL**	**Iñaki Olaizola**	**Doktorea**

			Antropologian
17-2-21	**POMPEYA, LA CIUDAD SEPULTADA POR EL VESUBIO**	**Mº José Noain**	**Geografia eta Historian lizentziaduna**
17-2-22	**LA GASTRONOMÍA COMO MOTOR ECONÓMICO Y SOCIAL: BASQUE CULINARY CENTER**	**José Mª Aizega**	**Basque Culinary Center-eko zuzendaria**
17-2-28	**LA LITERATURA DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS**	**Ana Merino**	**Filologoa**
17-3-1	**LA LITERATURA DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS**	**Ana Merino**	**Filologoa**
17-3-7	**LOS LATIDOS DEL AGUA. AGUAS SUBTERRÁNEAS**	**Inma Muguerza**	**Hidrogeologoa**
17-3-8	**TRES MARIAS:TRES NOMBRES DE MUJER** (Fundamentos para comprender la política energética hitzaldiaren ordez)	**Juan Agirre Sorondo** (Miguel Angel Dominguezen ordez)	**Historialaria**
17-3-14	**LA EMIGRACIÓN Y LA ULTRA DERECHA HOY EN DÌA EN EUROPA**	**Asier Blas**	**Zientzia Politikoetan doktorea**
17-3-15	**DURAR O VIVIR: ¿ES POSIBLE UNA VIDA LONGEVA SIN NEURODEGENERACIÓN?**	**Adolfo López de Munain**	**Mediku neurologoa**
17-3-21	**El MAR NEGRO: RUSIA, TURQUIA, UKRANIA** (Finanzas que luchan contra la pobreza hitzaldiaren ordez)	**Mikel Aramendi** (Arola Farré Tomasen ordez)	**Kazetaria**
17-3-22	**PELÍCULA SOBRE LA DIÁSPORA ARMENIA**	**Juanmi Gutierrez**	**Zinema errealizadorea**
17-3-28	**2000 AÑOS DE VETERINARIA**	**José Manuel Etxaniz**	**Albaitaritzan doktorea**
17-3-29	**LA CONQUISTA DE NAVARRA**	**Peio Ioseba Monteano Sorbet**	**Historian doktorea**
17-4-4	**GALERNAS EN LA COSTA VASCA**	**Margarita Martín**	**Meteorologoa**

2017ko 2. HIRUHILEKOKO PROGRAMAZIOA

FECHA DATA	**TEMAS/GAIAK**	**PONENTES/HIZLARIAK**	
17-4-25	**CONCIERTO ECONÓMICO: OTRO PUNTO DE VISTA.**	**Pedro Luis Uriarte**	**EJko Sailburu ohia**
17-4-26	**¿EL TURISMO MASIFICADO PUEDE SER UN PROBLEMA?**	**Koro Garmendia**	**EJko Turismoko Sialburu ohia**
17-5-2	**LA MÚSICA DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS.**	**Álvaro Corral**	**Orkestra zuzendaria**
17-5-3	**LA MÚSICA DESDE 1945 HASTA NUESTROS DÍAS.**	**Álvaro Corral**	**Orkestra zuzendaria**

17-5-9	**TRADICIÓN, FAMILIA, SEXO EN NUESTRA SOCIEDAD. (Cambios y bases para su valoración.**	**Jexuxmari Mujika**	**Filosofian eta Geografia eta Historian lizentziaduna**
17-5-10	**LA NECESIDAD DE TALENTOS EN EUSKADI.**	**Ivan Jimenez**	**Zuzenbide ekonomikoan lizentziaduna**
17-5-16	**LOS MICROBIOS QUE HABITAN EN NOSOTROS.**	**Unai Ugalde**	**Doktorea Biolikimikan eta Biologian**
17-5-17	**TXERNOBIL TXIKI BAT ETXE BAKOITZEAN.**	**Ander Izagirre**	**Kazetaria eta idazlea**
17-5-23	**LA MÚSICA EN EL CINE II.**	**Marina Lerchundi**	**Musikan lizentziaduna**
17-5-24	**LA HEGEMONÍA DEL EUSKERA EN LA NAVARRA DEL SIGLO XVI.**	**Peio Ioseba Monteano Sorbet**	**Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko Goi Mailako Teknikaria**

2017ko 3. HIRUHILEKOKO PROGRAMAZIOA

FECHA DATA	TEMAS/GAIAK	PONENTES/HIZLARIAK	
17-10-10	**EUROPA EN LA ENCRUCIJADA: HACIA DÓNDE AVANZA EL PROYECTO EUROPEO?**	**Juanjo Álvarez**	**Nazioarteko Zuzenbideko katedraduna**
17-10-11	**EL CAMBIO CLIMÁTICO**	**Cristina Monge**	**Zientzia Politikoetan lizentziaduna**
17-10-17	**1977-1978 EN TORNO A LA TRANSICIÓN**	**Josu Chueca**	**UPV-EHUko Esperientzia Gelen Zuzendaria**
17-10-18	**HACIA DÓNDE VA EL CINE?. NUEVAS FORMAS DE EXHIBICIÓN Y DE CONSUMO AUDIOVISUAL**	**J. Luis Rebordinos**	**Donostiako Zinema Jaialdiaren Zuzendaria**
17-10-24	**EL FUTURO DEL EURO**	**J. Ramón Mariño**	**Ekonomialaria**
17-10-25	**EL FUTURO DEL EURO**	**J. Ramón Mariño**	**Ekonomialaria**
17-10-31	**LA PREHISTORIA EN EL PAÍS VASCO**	**Jesús Tapia**	**Aranzadi Elkarteko arkeologoa**
17-11-7	**LA REVOLUCIÓN FRANCESA**	**Carlos Rilova**	**Geografia eta Historian lizentziaduna**
17-11-8	**LA CIENCIA DE NUESTRAS VIDAS**	**Fernando Cossío**	**Kimika Organikoko Katedraduna**
17-11-14	**LA ÉPOCA ROMANA EN EL PAÍS VASCO**	**María José Noain**	**Arkeologoa, Erromatar zibilizazioan aditua**
17-11-15	**LA ÉPOCA ROMANA EN EL PAÍS VASCO**	**María José Noain**	**Arkeologoa, Erromatar zibilizazioan aditua**
17-11-21	**LOS VALORES ÉTICOS EN LA SOCIEDAD ACTUAL**	**Marisa Iglesias**	**Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna**

17-11-22	**LOS VALORES ÉTICOS EN LA SOCIEDAD ACTUAL**	**Marisa Iglesias**	**Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna**



17-11-28	**LOS BACALADEROS DE LA PYSBE**	**Jose Ignacio Espel**	**Gipuzkoako Fundazio Ozeanografikoaren lehendakaria (Aquarium)**
17-11-29	**LOS SABORES DE LOS REFUGIADOS**	**Peio García Amiano**	**Zaporeak proiektuaren kidea**
17-12-12	**COMPOSITORES VASCOS EN EL CINE**	**Marina Lerchundi**	**Musikan lizentziaduna**
17-12-13	**COMPOSITORES VASCOS EN EL CINE**	**Marina Lerchundi**	**Musikan lizentziaduna**
17-12-19	**EL MUNDO ES REDONDO. VUELTA AL MUNDO Y A ÁFRICA EN CAMIONETA**	**Jose Eladio Santacara**	**Bidaiaria**

Hitzaldia Okendon

2.2. Euskararen ikaskuntza

Arduraduna : Eva Esnal

Euskarako Batzordeko kideak: ***Elena Arrieta, Iñaki Lasa, Ramón Leturiondo, Juan Mari Pérez, Mari Carmen Zuaznabar, Mari Carmen Zubiaurre, Jose Mari Uranga***

Euskarako eskolak Topalekun zein Okendoko Kultur Etxean ematen dira, bertako hitzaldiak amaitzen dituztenean. Beste areto bat ere erabiltzen dute Topalekun.



Hau da, astearte eta asteazkenetan 12etatik 13etara.

TOPALEKU:

- 1. maila .- Juan Mari Perez
  8 ikasle
- Mintza Praktika . M. Carmen Zubiaurre eta M. Carmen Zuaznabar.

Txandaka antolatzen dute taldea. 4 ikasle

"Bakarka " metodoa erabiltzen dute, eta Mintza Praktikan hainbat artikulu eta eleberri irakurtzen dituzte euskaraz.

OKENDO KULTUR ETXEA:

- 1. maila .- Elena Arrieta. 6 ikasle
- 2. maila.- Iñaki Lasa. 8 ikasle
- 3. maila.- Ramón Leturiondo. 10 ikasle
- Mintza Praktika.- Horren ardura zuten bi pertsonek utzi egin zuten, eta denboraldi batez ezin eman dugu maila hau. Elkarteko inor lortu ez dugunez, bi laguni eskatu nien, ea beraiek ematea bazuten, eta onartu egin zuten: Mari Jose eta Marixabel Irizar. 7 ikaslek parte hartzen dute.



"Bakarka 1 eta 2" metodoa erabiltzen da, eta osagarri gisa aldizkari eta egunkarietako artikuluak, liburuetako pasarteak, eleberri fotokopiatuak, edo eleberriak erabiltzen dira.

Aurten, berrikuntza gisa, testuliburuetan idatzi nahi dituztenek, testuliburuak erosteko aukera izan dute. Irakurketa liburuak Helduen Hitzak ordaintzen ditu eta elkartean gelditzen dira, gordailuan, hurrengo ikasturteetan erabili ahal izateko.

Guztira 43 ikaslek parte hartzen dute, eta oso pozik daude irakasleekin. Etenik gabe hitz egiten dugu beraiekin, zer premia dituzten eta gustura dauden jakiteko.

Horrez gainera, Kantu Eguna antolatu da. Bezperan abestiaren euskarazko hitzak ematen zaizkie eta gaztelaniazko itzulpena, etxean irakurri eta uler dezaten eta, horrela, hobeto abestu dezaten gero. Joxean Jauregi da jarduera horren arduraduna. Gure kultura helarazi eta ezagutzeko modua da, inondik ere.



Azpimarratzekoa da irakasleek egiten duten borondatezko lana, zer ilusio jartzen duten jardueran; batzuek udan ere jarraitzen dute.

2.3. Hitzaldiak euskaraz

Jarduera honen arduraduna maiatza bitartean, hau da ikasturtea amaitu bitartean, Izaskun Mendikute izan zen, eta irailaz geroztik, berriz, Eva Esnalen esku egon zen jarduera. Jose Mari Urangak urte osoan zehar parte hartu du batzorde honetan.

Hitzaldiak hilean behin egiten dira, hileko hirugarren ostegunetan, Lugaritzeko Kultur Etxean. 30 lagunentzako lekua dago aretoan, baina ez gara inoiz kopuru horretara iritsi, nahiz eta inguruan ibili garen.

Euskarazko ezagutzak zabaldu nahi dituzten bazkideek parte hartzen dute hitzaldi hauetan. Jarduera honen bitartez gure elkartearen helburuetako bat betetzen da, hain zuzen ere, "*gaitasun mentalari eta bizitza osoan zehar ikasteko gaitasunari, etengabeko prestakuntzari alegia, eustea, eta taldeko jarduerak egitea, aisiaren kudeaketa eta buruaren garapen osasungarria".*

Gaiak eta hizlariak batzordeko bi kideek hautatzen ditugu. Edonola ere, aurretik parte hartzaileekin hitz egiten dugu zer gai interesatzen zaizkien jakiteko eta prest dagoen eta euskaraz zuzen hitz egiten duen hizlaririk lor daitekeen ikusteko.

Hizlariek, oro har, proiektorean emandako irudiekin laguntzen dituzte beren hitzak, azalpena errazteko eta ulerterrazagoa egiteko. Ondoren, eztabaida egoten da, galderak sortzen dira, iritziak…

Goizeko saioari amaiera emateko, pintxo bat hartu ohi dugu hurbileko taberna batean, eta han ere hizketan eta taldeko lotura afektiboak sendotzen jarraitzen dugu.

LANDUTAKO PROGRAMA:

- **Josu Txueka.- Jurramendi 1976-2016 Inpunitate luzea.**
  - Parte hartzaileak: 18. Emakumeak: 12 Gizonak: 6
  - Balorazioa: Gaia 8,5 Hizlaria 8,6
  - Denbora: Gutxi 2 Nahikoa 16



- **Alex Gurrutxaga.- Xabier Leteren lan baten irakurketa**
  - Parte hartzaileak 21. Emakumeak: 15 Gizonak: 6
  - Balorazioa: Gaia: 9,1 Hizlaria: 9,1
  - Denbora: Gutxi: 5 Nahikoa: 16
  -

- **Jose Ramón Zubiaur.- Hizkuntza gaskoia**
  - Parte hartzaileak: 18. Emakumeak: 11 Gizonak: 7
  - Balorazioa: Gaia: 7,1 Hizlaria: 6,8
  - Denbora: Gutxi: 0 Nahikoa: 18

- **Jon Unanue.- Larramendi, gehiegi zekien pertsona.**
  - Parte hartzaileak: 15. Emakumeak: 11 Gizonak: 4
  - Balorazioa: Gaia: 9,1 Hizlaria: 9,1
  - Denbora: Gutxi: 6 Nahikoa: 9

- **BISITALDIA TOPIC - TOLOSARA**
  - Parte hartzaileak: 17. Emakumeak: 1 Gizonak: 5
  - Balorazioa: Gaia: 9,2 Hizlaria: 8,9
  - Denbora: Gutxi: 1 Nahikoa: 16

- **Lourdes Otaegi Imaz.- Lizardi : Begirada zoragarria Bizitzari**
  - Parte hartzaileak: 18. Emakumeak: 11 Gizonak: 7
  - Balorazioa: Gaia: 8,6 Hizlaria: 9,3
  - Denbora: Gutxi: 3 Nahikoa: 15

- **Ramón Leturiondo.- Donostiako Alderdi Zaharra. Hirigintza eta Historia**
  - Parte hartzaileak: 29. Emakumeak: 21 Gizonak: 8
  - Balorazioa: Gaia: 9,2. Hizlaria: 9,2
  - Denbora: Gutxi: 15 Nahikoa: 10

- **Felipe Uriarte Cámara.- Mendizaletasuna.**
  - Parte hartzaileak: 22. Emakumeak: 15 Gizonak: 7
  - Balorazioa: Gaia: 8,7 Hizlaria: 8,3
  - Denbora: Gutxi: 9 Nahikoa: 12

Helduen Hitzako bazkide askoren jarrera azpimarratu nahi dut hemen, ideiak eman eta beren lankidetza eskaini didatelako. Lehenengo aldia da horrelako lan bat egiten dudala, eta babes handia sentitu dut.



2.4. Mendi Ibiliak

Urtero egiten denez, aurten ere buruturiko ekintzen ondorioak azaldu behar ditugu Helduen Hitza Elkartearen aurrean, beti bezala, irtenaldien egitarauak, partaidetza, ibilbideak, e.a. kontuan izanik.

IRTENALDIAK

Aurtengo irtenaldiak 45 ziren egitarauen barruan, baina alerta laranja zela eta **Anoeta-Hernialde-Alkiza-Anoeta** eta **Ormaiztegi-Lierni-Mutiloa-Lierni-Ormaiztegi** ibilbideak ondorengo hiruhilabeterako utzi ditugu.. Beraz, 44 izan dira 2017. urtean buruturikoak (kontuan eduki ostiralero bi egiten direla).

Lehen hiruhilabetea	Bigarren hiruhilabetea	Hirugarren hiruhilabetea	Laugarren hiruhilabetea
12 irtenaldi	10 irtenaldi	12 irtenaldi	11 irtenaldi

Ondorengo taulan, autobusaren erabilera, ibilbide berriak eta eginiko bazkariak aipatuko ditugu::

Hiruhilekoa	Autobusa	Ibilbide berriak	Bazkaria
Lehenengoa	Bitan	Bi	Behin: Azkoitiko Iturrin
Bigarrena	Bitan	Bi	Behin: Antiguako jatetxean
Hirugarrena	Ez	Hiru	Ez
Laugarrena	Bitan	Bi	Behin: Oiartzungo Tolaren

IBILTARIAK

Urtero, gure adina kontuan izanik, hainbat baja eta baita alta ere gertatzen da bidezidor kirolean. Zenbaitek galdetzen du zein den honen zio edo arrazoia. Asko dira, hauen artean osasuna, familiarekiko ardura, dagokigun aitona-amonen papera, eta abar.

Iaz data honetan **147** ibiltari ginen eta aurten **162,** honela banaturik:

TALDEAK

URDINA	ZURIA	GORRIA	BERDEA
25 emakume **15 gizonezko**	**28 emakume** **15 gizonezko**	**30 emakume** **9 gizonezko**	**29 emakume** **11 gizonezko**
Guztira: 40	**Guztira: 43**	**Guztira: 39**	**Guztira: 40**
Beraz, ibiltarion artean 112 emakume eta 50 gizonezko			

Bestalde, utzi dutenen izenak hemen jartzea edo ibiltari berrienak aipatzea nekagarri eta aspergarria izan daitekeenez, ondorengo taulan talde bakoitzeko kopurua besterik ez dugu ezarriko. Hala eta guztiz ere, aipatu behar da gehiago direla guregana hurbildu direnak utzi dutenak baino. Hauei gure eskerrik beroenak hainbat urtetan sortu duten giro goxoarengatik. Jakin bezate bidezidor kiroleko ateak beti irekiak egongo direla beraientzat, inongo zalantzarik gabe.

2016. urtetik 2017ra bitartean kide izateari utzi diotenak eta aurtengo bazkide berriak			
URDINA	**ZURIA**	**GORRIA**	**BERDEA**
Utzi dutenak **(7)** **Bazkide berriak** **(13)** **34 / 40** **(+6)**	**Utzi dutenak** **(7)** **Bazkide berriak** **(12)** **38 / 43** **(+5)**	**Utzi dutenak** **(6)** **Bazkide berriak** **(9)** **36 / 39** **(+3)**	**Utzi dutenak** **(7)** **Bazkide berriak** **(8)** **39 / 40** **(+1)**

Partaidetzari dagokionez, ondorengo taulan azalduko da. Ez da zehatza, baina bai irtenaldi bakoitzeko gutxi gorabeherakoa.

PARTAIDETZA

Lehen hiruhilabetea	Bigarren hiruhilabetea	Hirugarren hiruhilabetea	Laugarren hiruhilabetea
34 emakume **16 gizonezko** **Guztira: 50**	**36 emakume** **16 gizonezko** **Guztira.52**	**24 emakume** **12 gizonezko** **Guztira:36**	**31 emakume** **20 gizonezko** **Guztira: 51**

Batzordeari dagokionez, esan dezakegu hamar lagun berberok jarraitzen dugula eta bakoitzak badakiela zer egin behar duen talde-lanaren barruan. Ekimen hauek era egokian banaturik daude, inori astun suerta ez dakion bere betebeharra. Iazko Memorian aipatu genituen eginkizunak eta ez ditugu errepikatuko hemen.

BATZORDEA

Arduraduna: ***Antton Arruti***

Batzordekideak: ***Manu Aguirre, Mertxe Argarate, Felix Aristi, Santi Briñas, Enrique Cercadillo, Mertxe Fernandez, Mariaje Lizarazu, Jon Puy eta Karmen Zubiaurre.***

Ibilbideei gagozkiola, esan behar dugu urtean hiruhileko lau egitarau prestatzen ditugula bai gaztelaniaz idatzirik eta baita euskaraz ere. Hauek garaturik eta garatu gabe izaten dira. Garatu gabeak ibiltari bakoitzari korreo elektronikoz bidaltzen zaizkio Batzordeak onartu ondoren, Garatuak, aldiz, asteartero bidaltzen dira ostiral horretan nondik norakoak izango dituen ibiltariak jakin ditzan.

Horrez gain, beharrezkoak diren gomendio batzuk ere itsasten zaizkie oharretan, hala nola, janzkera egokia eramatea, makilak, zerbait jan eta edateko egingo dugun atseden laburrean, e.a.

Ondorengo orrialdeetan doaz 2017. urteko hiruhileko lau egitarauak.

BIDEZIDOR KIROLA: 2017KO LEHEN HIRUHILEKO EGITARAUA

DATA	IBILBIDEAK	TALDEAK
2017-01-13	01.(D-10)Usurbil-Arratzain-GuardakoAingerua-Ibaeta 02.- (D-14) Igeldo (Kanpina)-Kukuarri-Igeldo (Done Jakue Bidea)	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2017-01-27	02.- (D-14) Igeldo (Kanpina)-Kukuarri-Igeldo (Done jakue Bidea) 01.- (D-10) Usurbil-Arratzain-Guardako Aingerua-Ibaeta	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2017-02-03	03.- (G-03) Beasain-Olaberria-Idiazabal-Segura (Itzulerako autobusa)	GUZTIOK ELKARREKIN
2017-02-10	04.- (k-11) Itziar-Endoia-Zestoa 05.- (U-08) Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-Zumaia	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2017-02-17	05.- (U-08) Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-Zumaia 04.- (K-11) Itziar-Endoia-Zestoa	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2017-02-24	06.- (B-12) Irun-Xantalen-Hirugurutzeta-Irun 07.- (T-06) Billabona-Amasa-Txertota-Andoain	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2017-03-03	O7.- (T-06) Billabona-Amasa-Txertota-Andoain 06.- (B-12) Irun-Xantalen-Hirugurutzeta-Irun	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2017-03-10	08.- (G-05) Abaltzisketa-Larraitz-Gaintza-Altzagarate-Altzaga (Joan eta etortzeko autobusa)	GUZTIOK ELKARREKIN
2017-03-17	09.- (B-06) Pasai Donibane-Jaizkibel-Pasai Donibane 10.- (K-03) Zarautz-Santa Barbara-Getaria-San Anton- Zarautz	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2017-03-24	10.- (K-03) Zarautz-Santa Barbara-Getaria-San Anton- Zarautz 09.- (B-06) Pasai Donibane-Jaizkibel-Pasai Donibane	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2017-03-31	11.- (U-04) Zumarraga-Azkoitia (Hiruhileko bazkaria)	GUZTIOK ELKARREKIN
2017-04-07	12a.- (T-03) Legorreta-Ibiur-Baliarrain-Ikaztegieta 12b.- (K-08) Orio-Agorregi-Iturraran-Orio	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK

Hauetako bat, arrazoi batengatik edo, ezin bada egin, ondorengoak ditugu ordezko:
(G-09) Ataun-San Martin-San Gregorio-San Martin-Lazkao-Beasain (Ibilbide berria)
(D-18) Donostia-Lasarte-Donostia

OHARRA: Aldez aurretik, astearteetan, ibiltari guztioi korreo elektronikoz helaraziko zaizkizue ibilbidearen nondik norakoak, irteeraren ordu eta leku zehatza eta baita janzkeraren gomendioak ere.Era berean, edaria eta zerbait jateko ekartzea komenigarria litzateke, ibilbidean atseden laburra egingo baitugu gehienetan.

BIDEZIDOR KIROLA: 2017KO BIGARREN HIRUHILEKO EGITARAUA

DATA	IBILBIDEAK	TALDEAK
2017-04-28	01.- (T-03) Legorreta-Ibiur-Baliarrain-Ikaztegieta 02.- (K-08) Orio-Agorregi-Iturraran-Orio	ZURI-GORRIAK URDIN-BERDEAK
2017-05-05	03.- (P-19) Herrera-Mendiola-Ulia (Kostaldetik)-Donostia 04.- (U-01) Azkoitia-Kukuherri-Loiola-Azpeitia-Lasao	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2017-05-12	05.- (B-05) Liztorreta-Susperregi-Urdaburu (Ingur.)-Susperregi-Liztorreta	GUZTIOK ELKARREKIN
2017-05-19	04.- (U-01) Azkoitia-Kukuherri-Loiola-Azpeitia-Lasao 03.- (P-19) Herrera-Mendiola-Ulia (Kostaldetik)-Donostia	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2017-05-26	06.- (G-11) Mandubia-Kizkitza-Osinalde-Antigua-Zumarraga (Bazkaria Antiguako jatetxe batean eta autobusa joateko)	GUZTIOK ELKARREKIN
2017-06-02	07.- (T-10) Tolosa-Izaskun-Ibarra-Belauntza-Leaburu-Tolosa 08.- (K-09) Itziar-Sakoneta-Elorriaga-Telmo Deum-Zumaia	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2017-06-09	08.- (K-09) Itziar-Sakoneta-Elorriaga-Telmo Deum-Zumaia 07.- (T-10) Tolosa-Izaskun-Ibarra-Belauntza-Leaburu-Tolosa	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2017-06-16	09.- (D-06) Donostia-Galarreta-Hernani-Lasarte 10.- (G-09) Ataun S. Martin- S.Gregorio-S. Martin-Lazkao-Beasain	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2017-06-23	10.- (G-09) Ataun S. Martin-S.Gregorio-S. Martin-Lazkao-Beasain 09.- (D-06) Donostia-Galarreta-Hernani-Lasarte	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2017-06-30	11a.- (B-03) Hondarribia (kaia) Eihera (errota)-Hondarribia 11b.- (K-13) Igeldo-Txakurtegia-Orio	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK

OHARRA

Aldez aurretik, astearteetan, ibiltari guztioi korreo elektronikoz helaraziko zaizkizue ibilbidearen nondik norakoak, irteeraren ordu eta leku zehatza eta baita janzkeraren gomendioak ere. Era berean, edaria eta zerbait jateko ekartzea komenigarria litzateke, ibilbidean atseden laburra egingo baitugu gehienetan.

Horrez gain, ibiltari guztiak jakin behar du “Alerta laranja” izaten den egunetan ez dela irtenaldirik izango. Hala eta guztiz ere, elkargunean beti izango da arduradunen bat ibilaldia bertan behera geratu dela jakinarazteko.

Bestalde, arduradunek ikusiko balute egunen batean zehazturiko ibilbidea ez dela egokia egun horretarako, aldatzeko eskubide osoa izango lukete, beste bat errazagoa aukeratuz.



BIDEZIDOR KIROLA: 2017KO HIRUGARREN HIRUHILEKO EGITARAUA
TALDE GUZTIAK BATERA

DATA	IBILBIDEAK	GUZTIAK
2017-07-07	(D-20) Donostia-Munto-Miramon Parkea-Aiete (Ibilbide berria)	KOLORE GUZTIAK
2017-07-14	(P-17) Irun-Amute-Santiagotxo-Guadalupe-Hondarribia	"
2017-07-21	(P-03) Orio-Txurruka-Kanpina-Mollarri-Zarautz	"
2017-07-28	(D-17) Astigarraga-Ergobia (Oilalume)-Santiagomendi-Astigarraga (Ibilbide berria)	"
2017-08-04	(P-18) Gaintxurizketa-Jaizkibel-Pasai Donibane	"
2017-08-11	(P-04) Igeldo-Aginaga-Usurbil (Laburtua)	"
2017-08-25	(P-23) Trintxerpe-Platako itsasargia-Mendiola-Ulia-Donostia	"
2017-09-01	(P-24) Errenteria-Zamalbide-Txoritokieta-San Marko-Lau Haizeta-Altza	"
2017-09-08	(P-11) Donostia-Lasarte-Urnieta	"
2017-09-15	(P-12) Ibaeta-Aritzeta-Txikierdi-Añorga-Lorea	"
2017-09-22	(K-20) Zarautz-Santa Barbara-Askizu-Zumaia (Ibilbide berria)	"
2017-09-29	(P-08) Igeldo-Orio (Done Jakue bidetik)	"

Aste Nagusiko ostiralean ez da irtenaldirik egingo

OHARRA

Aldez aurretik, astearteetan, ibiltari guztioi korreo elektronikoz helaraziko zaizkizue ibilbidearen nondik norakoak, irteeraren ordu eta leku zehatza eta baita janzkeraren gomendioak ere. Halaber, uda denez, edaria eta zerbait jateko ekartzea komenigarria litzateke, ibilbidean atseden laburra egingo baitugu gehienetan.
Horrez gain, eguraldia dela edo, ibilbide hauetako edozein alda edo bertan behera utz daiteke, arriskutsua dela ikusten bada

BIDEZIDOR KIROLA: 2017. URTEKO LAUGARREN HIRUHILEKO EGITARAUA

DATA	IBILBIDEAK	TALDEAK
2017-10-06	01- b (K-13) Igeldo-Txakurtegia-orio 01- a (B-03) Hondarribia (kaia)-Eihera-Hondarribia	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2017-10-13	02.- (D-05) Donostia-Basozabal-Ergobia-Basozabal-Donostia 03.- (T-02) Tolosa-Altzo-Alegia-Tolosa	URDIN-GORRIAK ZURI-BERDEAK
2017-10-20	03.- (T-02) Tolosa-Altzo-Alegia-Tolosa 02.- (D-05) Donostia-Basozabal-Ergobia-Basozabal-Donostia	URDIN-GORRIAK ZURI-BERDEAK
2017-10-27	04.- (B-10) Artikutza (Eskasen hasita) (Autobusa joan eta etortzeko)	GUZTIOK BATERA
2017-11-03	05.- (U-09) Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-Arroa Goikoa-Iraeta-Zestoa 06.- (K-19) Deba-Kalbarioa-Olatz auzoa-Mutriku	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2017-11-10	06.- (K-19) Deba-Kalbarioa-Olatz auzoa-Mutriku 05.- (U-09) Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-Arroa Goikoa-Iraeta-Zestoa	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2017-11-17	07.- (B-01) Arditurri (Tolaren bazkaria)	GUZTIOK BATERA
2017-11-24	08.- (T-07) Anoeta-Hernialde-Alkiza-Anoeta 09.- (G-01) Ormaiztegi-Lierni-Mutiloa-Lierni-Ormaiztegi	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2017-12-01	09.- (G-01) Ormaiztegi-Lierni-Mutiloa-Lierni-Ormaiztegi 08.- (T-07) Anoeta-Hernialde-Alkiza-Anoeta	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2017-12-15	10.- (T-09) Besabi-Munisko-Besabi-Urnieta (Ibilbide berria eta autobusa joateko)	GUZTIOK BATERA
2017-12-22	11-a (D-18) Donostia-Lasarte-Donostia 11-b (B-14) Pasai Donibane-Hondarribia	URDIN-GORRIAK ZURI-BERDEAK

IBILBIDE BERRIAK

Urtean zehar, bai neguan eta baita udan ere, inoiz ez ditugun ibilbideak prestatzen ditugu. Gutxienez sei izaten dira, hurrengo urtean lehen, bigarren eta laugarren hiruhilekoetan burutzeko. Horrez gain, zalantzak uxatzeko edo, lehen egindako bat baino gehiago berregiten dugu. Aurten egindakoak ondoren ezarriko ditugu, bere kode, luzera edo distantzia eta zailtasuna kontuan edukirik.

▲ Erraza ▲▲ Ertaina ▲▲▲ Zaila: Distantzia edo aldapen arabera

(T-11) SANTUTXO-SANTA MARINA-SANTA AGEDA-BIDANIA 12,3 km...▲▲▲

(D-21) HERNANI-URNIETA-AZKORTE-ORIA-LASARTE 11,0 km...▲▲

(B-13) LEZO-GAINTXURIZKETA-GURUTZE-ALTZIBAR 14,0 km...▲▲▲

(T-12) TOLOSA-ALDABA TXIKI-LANGAURRE-ALEGIA 13,0 km...▲▲▲

(T-13) BERASTEGI-SAN LORENZO BASELIZA-BERASTEGI 12,0 km...▲▲▲

(U-06) AIZARNA-SANTA ENGRAZIA-ERDOIZTA-AIZARNA-ZESTOA 16km...▲▲▲

Orain arte egindako guztiak kontuan edukirik baditugu **117** ibilbide prestaturik, baina askoz gehiago izan daitezke helmugatik hasi eta irteerara eginez gero, beraz, alderantziz.

IBILBIDEAK, KODEAK ETA EREMUAK

EREMUA	KODEA	ZENBAKIAK	KOPURUA
DONOSTIALDEA	(D-)	(D-01)...(D-21)	21
KOSTALDEA	(K-)	(K-01)...(K-19)	19
UROLALDEA	(U-)	(U-01)...(U-09)	09
GOIERRIALDEA	(G-)	(G-01)...(G-11)	11
TOLOSALDEA	(T-)	(T-01)...(T-14)	14
DEBABARRENA	(DB-)	(DB-01)…	01
BIDASOALDEA	(B-)	(B-01)...(B-14)	14
ZENBAIT	(V-)	(V-01)...(V-04)	04
IBILBIDE LABURRAK	(P-)	(P-01)...(P-24)	24

Guztira: 117

GOGOETA

Zein da bidezidor kiroleko helburua?

Ez da bakarra, izan ere, bertan zenbait diziplina lantzen da ia konturatu gabe.

Alde batetik, gure **herria** era lasaian **ezagutzea**, inolako presarik gabe, gure oinek agintzen duten eran. Gutako askok Gipuzkoa eta inguruak ezagutzen ditugu, autoz joan garelako herri gehienetara, baina ez du zer ikusirik oinez eta patxadaz egitearekin, askoz gehiago gozatzen delako modu honetan.

Hasteko, **kostalde** edo itsasertzeko paisaia aparta zeharkatzen dugu Hondarribiko Higer lurmuturretik hasi eta Jaizkibel, Mendiola, Ulia, Igeldo, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku eta, azkenik, Ondarroara iritsi arte.
Gipuzkoa sakonean ere sartzen gara, Beterri eta Goierri aldera: Anoeta, Hernialde, Alkiza, Tolosa, Alegia, Aldaba, Ordizia, Beasain, Lazkao, Ataun, Ormaiztegi, Lierni, Mutiloa, Segura eta Azpeitia, Azkoitia, Urretxu, Zumarraga, eta beste hainbat herritara.
Baso ederrak zeharkatzen ditugu, batez ere Artikutzako baso sorgindua, Urdabururen ingurukoa eta aipaturiko hainbat herritakoak.
Euskara erabiltzen, ahal den neurrian, saiatzen gara, eta ikasten ari direnei zalantzak argitzen ere ahaleginak egiten ditugu.



Artikutzako baso sorginduan sartzen

Ibiltzeak **osasunari** laguntzen dion neurrian ere kontuan izaten dugu. Esan behar da maiz etortzen den jendeak prestakuntza egokia duela, gero eta errazago dabilela.
Une aparta **Hamaiketakoa**rena da. Nolabait esfortzuz irabazitako sari eta memento gozoa da, giro ederra sortzen duena. Atseden unea, tortillaz, lukainkaz, sagardoaz edo ardoaz gozatzekoa.
Helburuaz helburu, esan behar da bidezidor kirolean dagoen aberastasunik handiena **jendea bera** dela, honek sortzen baitu girorik aproposena, elkar ezagutzeko parada eman eta abegikortasuna, eskuzabaltasuna, e.a. erakusten.

Beraz, Batzorde honek ibiltari guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkie era horretan laguntzeagatik.



Mulisko Gainaren inguruetan, talde osoa



Gurutzen, hamaiketakoaz eta kantuaz gozatzen

Bidezidor kiroleko batzordea

2.5. Ibilaldiak- Ibilbide osasungarriak

ARDURADUNA: Luis Barinagarrementeria Badiola

BATZORDEA: Ana Aierdi, Rakel Aierdi, Inés Alegría, Antxón Alonso, Jesús Claramunt, Luis Felipe Hernández eta Ana de Miguel.

Jarduera hau 2015. urtean sortu zen, asmo argi batekin, hain zuzen ere irteera ematea elkartean sustraitua dagoen zaletasunetako bati, gure lurraldean barrena ibiltzeko zaletasunari, leku horietatik gure paisaia ederrez gozatzeko eta hamaiketakoak kirolaren eremu honetan antzeko gustuak eta zaletasunak dituzten elkarteko beste bazkideekin partekatzeko asmoarekin.

Eta horrela, 2015eko azaroaren 9an sortu zen IBILBIDE OSASUNGARRIAK jarduera. Astelehen batez eman zioten hasiera 9 ibiltarik. Goizeko bederatzietan Okendoko Kultur Etxetik atera ziren, beren motxilak bizkarrean zituztela eta, batez ere, ilusio handiarekin. Egun eguzkitsu bat lagun genuela, honako ibilbide hau egin genuen: Okendo, Ategorrietako Galtzada Zaharra, Intxaurrondoko Bidegorria, Trintxerpe eta San Pedroko Puntak.

Ibiltariak oso kontentu gelditu ziren, eta ASTELEHENA gelditu zen jarduera honetarako egun ofizial gisa.

2016. urtean ez zen jarduera eten, ezta oporretan ere, baina aldaketa batzuk egin ziren: ibilbide gehiago, aukera gehiago, itsas ertzean edo barrualdean, Donostia inguruan edo urrunago…: Lasarte, Astigarraga, Hernani, Zarautz, Pasaia, Hondarribia, Errenteria... Eta beste aldaketa bat ere izan zen: bi talde hasi ziren ateratzen, eta horietako bat OSTIRALETAN ateratzen hasi zen.

Talde hori 2017ko azaroan desagertu zen, taldeko kide askok konpromiso ugari baitzituzten beste jarduera batzuetan, eta ASTELEHENA gelditu zen asteko irteera egun gisa. Astelehen horietan ugaritu egin da parte hartzaile kopurua, antolatuago gaude, ibilbide gehiago ditugu, adiskidetasun handiagoa…

2017ko azken hiruhilekoan, batzorde bat osatu zen, jardueraren ondoriozko zeregin guztiei erantzun ahal izateko: ibilbideak, gidak, oharrak, hamaiketakoak, klimatologia, garraio ordutegiak joateko eta, ia gehienetan, itzultzeko…..

Astero ibilbideei buruzko oharrak bidaltzen zaizkie posta elektronikoz edo WhatApp. sare sozialaren bitartez, ibilbideari, ordutegiari, behar diren garraiobideei, klimatologiari, hamaiketakoaren lekuari… buruzko informazioarekin.

Denok hain beharrezkoa dugun taldeen eta parte hartzaileen arteko adiskidetasunaren mesedetan, bazkari bat egiten da, hiru hilez behin; ez da beti leku berean izaten, menuak aberatsak izaten dira eta prezio onean. Era horretara, egun atsegina igarotzen dugu, eta aukera izaten dugu taldeko kideen artean adiskidetasun loturak sendotzeko.



Eguraldia gorabehera, astelehenetan batez beste 12-24 lagunek parte hartzen dute. Eguraldiarekin zorte ona edukitzen dugu, eta baita ausardia handia ere, eguraldia kontra jartzen denean. Oso giro atsegina egoten da, eta ez da erraza izaten “arrazoi txiki” horien ondorioz joan gabe gelditzea.

Jardueraren laburpen gisa esan liteke, beraz, haizea alde duela ari dela jarduera aurrera egiten, jarduera hobetzeko asmo argiarekin (adiskidetzea, ibilbideak, giroa…). Hori guztia, dagoeneko “neska-mutiko” ez garen Helduen Hitzakoek gure zaletasunekin jarraitzeko aukera izan dezagun egunez egun, eta behar duenari laguntza emanez. Azken batean, IBILALDI OSASUNGARRIetan naturaz gozatzen dugu, konpainia ezin hobean gainera.

Ondoren, IBILALDI OSASUNGARRIAK jardueran egiten ditugun zenbait ibilbide azaltzen ditugu, adibide moduan:

1) Behin baino gehiagoan egin dugu Grosetik Pasai San Pedrorako bidea eta Pasai Donibanera igaro gara gero.

2) Amarako topoko geltokitik Hernanira joan gara, Loiolatik eta Martutenetik, hainbat ibilbide eginez.

3) EASO PLAZA - LASARTE: Topoan joan Lasartera, eta, handik, Zubietatik Usurbilera eta itzuli. Noizbait, Lasartetik oinez itzuli gara.

4) ZARAUTZ - GETARIA - ZARAUTZ: Topoa Easo Plazatik Zarautzera, malekoitik Getarira, eta aldapan, berriro Zarautzera, malekoitik.

5) ONKOLOGIKOA - ANTIGUO: Oriamendiko gasolindegitik, Oriamendi Pasealekua Errotaburu…...

6) SAGASTIEDER PLAZA - AMETZAGAINA – ASTIGARRAGA

7) OKENDO K.E. - MARTUTENE - AMARA ZAHARRA

8) GALARRETA - URNIETA

9) AMARA - FICOBA - HONDARRIBIA: Topoa Ficobara (Irun). Hendaiara igarotzea. Itsasertzeko pasagunea Hendaiako kirol portura. Txalupa Ondarribira.


10) DONOSTI - OIARTZUN: Trena Oiartzuna, eta bidegorritik Arditurrira. Tolarea eta hiruhileko bazkaria.

11) URDANIBIA eta PLAYAUNDKO PADURAK: Renfen Iruna, lehenbizi Jaizubiako hezeguneetara bisita, eta, gero, Txingudira.

Jarduera honen bitartez solidaritatearen, adiskidetasunaren eta hain premiazkoak diren beste balio batzuk sustatzen eta garatzen dira. Esan beharra dago oso giro ona dagoela jarduera honetan parte hartzen duten pertsonen artean.

2.6. Literatura Tertuliak

Arduraduna: Carmen García Viscarret



Jarduera hau da Helduen Hitzako jarduera beteranoetako bat, eta sasoian jarraitzeaz gainera, urtetik urtera gero eta parte hartzaile gehiago ditu. 2016-2017 ikasturtean 50 tertuliakidek baino gehiagok eman dute izena, eta bi taldetan banatu dira. Hileko azken bi

astelehenetan elkartzen dira, arratsaldeko 4,30etik 6etara, Topalekuko Pagoa aretoan.

José Domingo da tertulia horien dinamizatzailea azken urteetan. Tertuliaren hasieran liburuaren deskribapen bat egiten du, literatura estiloa, pertsonaiak eta alderdi garrantzitsuenak azaltzen ditu, eta eztabaida eta parte hartzaileen hitza antolatzen du. Aurretik, sinopsi moduko bat osatzen du egileari eta haren lanari buruz, eta izena eman dutenei bidaltzen zaie posta elektroniko bidez, eta baita liburua euskarri digitalean (e-book erabiltzen dutenentzat) eta liburuari buruzko hainbat informazio ere.

Tertuliaren hasieran eta amaieran balorazio bat egiten da, parte hartzaile bakoitzak liburuari buruz duen iritzia jakiteko, eztabaidatu aurretik eta ondoren. Balorazioak dinamizatzaileak jasotzen ditu balantze orokorra egiteko. Aurtengo balorazioek emaitza oso altuak eman dituzte.

Honako hauek izan dira aurten programatutako liburuak:

2017	Izenburua	Egilea
Urtarrila	Stoner	John Williams
Otsaila	El fantasista	Hernan Rivera
Martxoa	Una mujer en Berlin	Anónima
Apirila	En tiempo de prodigios	Marta Rivera de la Cruz
Maiatza	Los bienes de este mundo	Irene Nemirovsky
Ekaina	Los girasoles ciegos	Alberto Méndez
Urria	La vida ante si	Roman Gary
Azaroa	Mujeres de Negro	Josefina Aldecoa
Abendua	La puerta	Magda Szabo

Tertuliak oso aberatsak izan dira historiari, garaiari, pertsonaiei, eta abarrei buruzko esku hartzeei dagokionez.
Urte hauetan zehar oso parte hartze handia lortu da eztabaidetan, eta laguntasun giro oso atseginean egin dira gainera.

Laburbilduz, jarduera honek irakurzaletasuna sendotzen du, eta zenbaitean liburua ez bazaigu ere denoi berdin gustatu, horri buruz eztabaidatzea eta iritziak azaltzea komunikazio jarduera ona da, eta aberastuta irteten gara tertulietan edukitako eztabaidetatik.

2.7. Ostegunetako Foroa

ARDURADUNA: Jose Manuel Susperregi

Gauza jakina denez, Ostegunetako Foroa hainbat gairi buruzko eztabaidarako gune bat da, izenak berak adierazten duen bezala. Gaiak gaurkotasun handikoak izaten dira oro har, denoi eta/edo adinekoei kezkatzen gaituztenak. Ostegunetan izaten da, ikasturte osoan zehar.

2016/17 ikasturtean zehar, Ostegunetako Foroak azken urteetako goranzko joerari eutsi dio: 54 lagunek eman zuten izena, eta 2016/17 ikasturterako, berriz, 68 izan dira.

2015/16 ikasturtean 28 saio egin ditugu guztira. Eta, astero, batez beste 27 bazkidek parte hartu dute. Egunez eguneko parte hartzeari erreparatzen badiogu, 50 bazkidek parte hartu dute.

27 pertsonako batez besteko hori hiru bloketan banatu liteke:

a) Sei edo zortzi saiotan parte hartzen dutenak: 25 lagun daude talde horretan (zenbaitek izena ematen dute, baina gero ez dira behin ere joaten).

b) Zazpi eta hamasei saio bitartetan parte hartzen dutenak: 20 lagun.

c) Hamasei eta hogeita zortzi saio bitartetan parte hartzen dutenak: 16 lagun inguru.

Parte hartzeari dagokionez, kontuan hartu behar da hilean bitan, Foroaren egun berean, osteguna, elkartearen beste bi jarduera izaten direla: Irteera Kulturalak eta Hitzaldiak Euskaraz, hilean behin egiten direnak, eta Foroko hainbatek horietan ere parte hartzen dute. Horrez gainera, edonolako gorabehera pertsonalak gertatu ohi dira.

Aipatzekoa da, bestalde, parte hartzaileen kopurua handitzen joan dela, eta horrek ez duela gorabehera nabarmenik ekarri saioen jardunari dagokionez; are gehiago, eztabaidak aberasteko balio izan dute.

Eztabaidatu eta landu diren gaiak honako hauek izan dira:

- Donostiako 2016ko Europar Kultura Hiriburutza, eta lortu nahi ziren helburuak.

- Jordi Evolek Genero Indarkeriari buruz telebistan egindako saio baten ondorioz, gai horri buruz eztabaidatu eta gaian sakondu zen. Bazkide batek poema bat irakurri zuen.

- Ustelkeria, ondorioak eta konponbideak. Panamako paperak.

- Merkataritza eta Inbertsiorako Lankidetza Transatlantikoa, TTIP izenaz ezaguna. Iñaki Gabilondo eta El gran Wyomingen bi bideo labur proiektatu ziren.

- Gizarte Segurantzaren pentsioak, horien balioa handitzea, gutxienekoak eta gehienekoak, etorkizunik baduten. Beste saio batean, Gipuzkoako Elkarteen Plataformak egindako manifestuari buruz eztabaidatu zen, eta haien errebindikazioei eta atxikimenduei buruz jardun zen.

- Donostian metroa jartzeari buruz.

- Parisko itunak eta klima aldaketa, eta zer ekarpen egin ditzaketen herritarrek.

- Erabakitzeko eskubidea, zer den, zertan datzan.

- Haurren eta adinekoen kontrako tratu txarrak.

- Aurten bi hitzaldi egon dira Juanjo Alvarez eta Ignacio Zubiriren eskutik, Brexit ingelesa eta Ekonomia Itunari buruzkoak, eztabaidarako balio handikoak.

- Martxoaren 8ko jaia, *Emakumearen eguna,* desberdintasunak, eskubideak...

- Eusko Jaurlaritzak onartutako Tabakoari buruzko Legea.

- Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) eta Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza (DSBL).

- Errefuxiatuek Europan duten egoera.

- Gure seme-alaben eta iloben belaunaldia, gu baino hobeto edo okerrago bizi diren, aukera berdinak dituzten.

- **Herritarren parte hartzea gizartean**, Donostiako Udaleko **kontseilu sektorialak** eta zehazki **Udal Mugikortasun** kontseilua.

- Herritarren parte hartzea gizartean, Donostiako Udaleko kontseilu sektorialak eta zehazki Udal Mugikortasun kontseilua.

Ikasturtearen amaieran jardueraren balorazioa egin zen: alderdi positiboak eta negatiboak, nola funtzionatu duen, Foroaren helburuak betetzen dituen, zer ekarpen egiten dituen eta zer ekarpen egin dizkiogun guk taldeari, zer botatzen dugun faltan, etab.

Lanerako metodo gisa, galdetegi bat erantsi dugu urtean zehar: 1. parte hartzaileen artean hautatzeko zer gai landu nahi ditugun, 2. gaien lehentasunak



finkatzeko eta kalifikatzeko, eta 3. gai berriak proposatzeko.

Eta hori guztia saio bakoitzaren bat-batekotasuna eta naturaltasuna galdu gabe.

Zer azpimarratuko genuke aurreko ikasturteko foroari dagokionez?

• Batzordeak talde gisa funtzionatu duela eta hainbat aldiz elkartu dela foroaren funtzionamendua nola hobetu lantzeko. Emakumeen falta nabaritzen dugu.

• Hirugarren urtez, parte hartzaile kopurua finkatzen ari da, eta batez beste 25/30 bazkidek pate hartzen dute saioetan.

• Zenbaitetan, gai jakin batzuetarako, hobekuntzak egin dira ikus-entzunezko baliabideei esker, baina ez da nahikoa. Berehalako etorkizunean, lehentasuneko helburua izan liteke hori.

2.8. Kultura irteerak

Arduraduna : Marivi Osoro

Honako bazkide hauek osatzen dute jarduera hau antolatzen duen **batzordea: Ana Ayerdi eta Marivi Osoro (arduraduna), eta Ramón Leturiondok laguntzaile gisa jarduten du historia eta arteari buruzko gaietan.**

IRTEERAK ETA IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA

5 irteera kultural antolatu eta egin dira, eta baita 2016-17 ikasturte amaierako bidaia ere, zeinetan parte hartu duten, gutxi gorabehera, 341 lagunek.

- **Otsailak 16 – Irteera "OÑATI – ARANTZAZUKO SANTUTEGIA"**



Bidaurretako Monasterioan eman genion hasiera ibilbideari. Juan Lopez de Lazarraga, errege-erregina katolikoen kontulariak eraikiarazi zuen XVI. mendearen hasieran. Hirigunean barneratu ginen, udaletxeraino –XVIII. Mendeko barrokoa– eta Foruen plazaraino –XIX. mende bukaera–. Plaza laukizuzena da, arkupeduna hiru aldetan.

San Migel Goiaingeruaren parrokia eliza, XV. mendean eraikitako gotiko goiztiarra. Interesgarria da Ubao ibaiaren gaineko klaustro berezia, Rodrigo Mercado de Zuazola gotzainak XVI. menden eraikia, estilo gotiko flamigerokoa. Dorrea neoklasikoa da, XVIII. mendekoa.

Sancti Spiritus unibertsitatea, eraikin errenazentista da, Rodrigo Mercado de Zuazola gotzainak sortua. XVI. mendearen erdialdeaz geroztik XX. mendearen hasiera arte Euskal Herriko lehenengo unibertsitate gisa eta unibertsitate bakar gisa jardun zuen.

Arantzazuko santutegia. 1950ean hasi zen gaur egungo basilika eraikitzen. Francisco Javier Sáenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek egin zuten lana.

Elizaren fatxadan, Jorge Oteizaren Pietatearen irudia dago, sufrimenduaren aurpegierarekin. Beheko aldean, 14 apostoluak, Oteizarenak horiek ere. Burdinezko ate batetik sartzen da, Eduardo Chillidaren lana.

- **Martxoak 23– Irteera "AÑARBE"**

  Martxoko irteeran, uraren prozesu guztia ezagutu genuen: hura urtegian sartzen, edateko moduko egin eta arazten, itsasora isuri aurretik. Urtegia hormigoizkoa da, eta 1968 eta 1977 bitartean eraiki zen, Añarbe ibaiaren gainean, Urumea ibaiarekin bat egiten duen gunetik 600 metro gora, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan.

Loiolan Hondakin Uren Araztegian egon ginen bisitan. Etxeetako eta industrietako urak eta euri urak arazten dira bertan.

Kontsumitzen dugun ur zikloaren ezagutza osatzeko, Astigarragako ETAPera igo ginen (Ur edangarriaren tratamendurako gunea).





ETAPean, 1.650l/s ur tratatzeko gaitasunarekin, ura CO2 eta karearekin bermineralizatzen da, ozono bidez aurreoxidatu, fluorizatu eta kloratu egiten da.

- **Maiatzak 4- Irteera ATAPUERCA eta HUELGASeko MONASTERIORA**

Atapuercari eta euskal herritarren DNAren jatorriari buruzko hitzaldiaren ondoren, interes handia sortu zen berriro ere Atapuercara itzultzeko.

Oraingo honetan, Eneko Iriarte izan genuen gidari Portalean zehar, eta lau hominido espezieri buruz hitz egin zuen.

Arratsaldez, Las Huelgas Monasteriora joan ginen bisitan. 1187an sortu zuen Alfontso VIII.ak eta haren emazte Plantageneteko Leonorrek.



Monasterio handi bat da, gotorleku baten itxurarekin. Elizaren eraikinak zistertar ereduari jarraitzen dio, hiru nabe luzerekin eta gurutzadura eraikinarekin; azken horrek, kasu honetan, bereizketa horma bat du, elizatik bereizten duena, klausurakoa baita.

- **Ekainaren 5etik ekainaren 12ra – Ikasturte amaierako bidaia - ALSAZIA**

1. EGUNA. DONOSTIA – CLERMONT-FERRANT

Clermont-Ferrant Auverniako hiriburua da. Frantziaren erdialdean dago, eta goi-ordoki bat da inguruan nagusia. Bertan, sumendi kate bat dago, eta bertan dago, halaber, “Puy-de-Dôme” sumendi ezaguna.

2. EGUNA. CLERMONT-FERRAND - MULHOUSE

551 km-ko bidaia, Clermont-Ferrantetik Mulhousera.

3. EGUNA. ESTRASBURGO – COLMAR

Estrasburgo Frantziako hiri bat da, Alsazia eskualdearen barruan dagoena; Rhin Beherea departamentuko hiriburua da. Hirigune historikoa Gizadiaren Ondaretzat hartua da, eta eraikin historiko eta arkitektoniko ikusgarriak biltzen ditu.

Colmar hiria, berriz, Rhin Garaian dago. Ondare kultural aberatsa du, “Venezia txikiaren” ubideak eta Erdi Aroko eraikin ugari.



EGUNA. BASILEA – RHINeko UR-JAUZIAK

Basilea suitzar hiria da, Frantziaren eta Alemaniaren arteko mugan. Rhineko azken ibai portua dago bertan, izan ere, ibaiaren goiko ibilguan Rhineko ur-jauziak daude, nabigaziorako oztopoa.

Udaletxea 500 urte dituen eraikina da, eta MARKTPLATZen dago. Oso eraikin deigarria da, gorri bizikoa eta urre koloreko kupularekin. Barrualdean patio harrigarri bat du, bai arkitekturaren ikuspegitik bai bertako hormetako margolanengatik.



Schaffthausen-en jan ondoren, hiri eder honetako kaleetan zehar ibili ginen. Eraikin ugari daude kanpoaldean horma pinturekin, eskulturekin eta iturriekin. Munotera igo ginen, XVI. mendeko gotorleku bat; dorre zirkular bat du, eta bertatik ikusten dira bai ibaia bai hiri osoa.

Handik 15 minutura, Rhineko ur-jauziak daude: Europa erdialdeko ur-jauzi handienak. Itsasontziz joan ginen ur-jauziraino, ibaian barrena. Egun eguzkitsua zen, eta izugarrizko ikuskizuna ikusi ahal izan genuen, ostadarra eta guzti ur-jauziaren gainean.

6. EGUNA. TITISEE AINTZIRA (SUITZA) – FRIBURGO (ALEMANIA)


Titisee aintzira jatorri glaziarrekoa da. Inguruko basoak islatzen dira bertako uretan; paisaia izugarri ederra da. Goiz hotza eta eguzkirik gabea izan bazen ere, ez zen turista askorik, eta asko gozatu genuen.

Goiz erdian iritsi ginen Friburgora, Oihan Beltzeko hiriburura, hain zuzen ere. Hango jakiez gozatu ondoren, hirigune historikoa ezagutu genuen: udaletxe zaharra eta berria, katedral gotikoa, Erdi Aroko jatorrizko beirateak dituena.

Ohiko “ubideak” (espaloiei paralelo dauden erreten txikiak), jatorriz uraren hornidurarako pentsatu ziren, baina baita hustubide gisa ere.



6. EGUNA. BOURG-EN-BRESSE – LYON



Donostiarako itzulerako bidean, Brouko monasterioan gelditu ginen. Bertako eliza eta museoa ezagutu genituen, arte gotiko flamigeroaren (flamenko) erakusgarri handia.

Lyon Rodano eta Saona ibaiek zeharkatzen dute; hegoaldean egiten dute bat, penintsula bat osatuz. Bi mendik inguratuta dago, mendebaldean bat (errezatzen duen mendia), Notre-Dame Basilikarekin, eta iparraldean bestea (lan egiten duen mendia). Azken horretan zeuden zetazko ehunak egiten zituzten tailer asko.

7. EGUNA. PÉRIGUEUX – BORDELE

Eguna bidaian igaro ondoren, arratsaldeko lehen orduan, Pérgueux-era iritsi ginen. Ez zebilen jenderik bertako kaleetan, igande arratsaldea zen, eta bero handia zegoen. Saint-Fronteko katedrala garrantzizko geldialdia da Done Jakue bidean. XIX. mendearen bigarren erdialdean zaharberritu zuen Paul Abadie arkitektoak.

8. EGUNA. BORDELE – DONOSTIA

Garona ibaiak zeharkatzen du hiria, eta itsasontzi handientzako garrantzizko portua dago bertan. Bordelen dago Garona ibaiko azken zubia, Akitaniako zubia; haratago ibaia eta estuarioa, ferryan baino ezin zeharka litekeena. XVIII. mendea urrezko garaia izan zen Bordelen; erdialdeko eraikin asko, kaikoak barne, garai horretakoak dira. Victor Hugori hain polita iruditu zitzaion hiria, ezen honela esan zuen “Hartu Versailles, erantsi Anberes, eta Bordele lortuko duzu”.



ETA BIDAIAREN AMAIERA, NEKATU SAMAR BAINA OSO OROITZAPEN POLITAREKIN, IZAN ERE, LEHENENGO ALDIZ IBILI BAIGINEN EUROPAN BARRENA.

ESKERRIK ASKO DENOI

- **Urriak 19 LARRUNEKO GAINA – SARAKO HAITZULOA - BAIONA**

  Urriko lehenengo irteerarekin, Iparraldera, eman genion hasiera ikasturte berriari. Hainbat eratako esperientziak nahastu nahi izan ditugu, eta kremailera trenean igo ginen Larrunera.



Sarako haitzuloak orain dela 100 milioi urte hasi ziren osatzen, eta Historiaurreko Mouster aldian hasi ziren jendeztatzen, orain dela 45.000 urte.

Jose Miguel Barandiaranek aztertu zuen haitzulo multzo honen eta euskal mitologiaren arteko harremana, ingurune hori oso aberatsa baita elezaharrei dagokionez, eta gainera, ustezko sorgin ugari jazarri ziren.

Baiona hiria Lapurdum izeneko erromatar klaustroaren hondakinen gainean sortu zen Baiona, eta hortik datorkio izena, hain zuzen ere, Lapurdiko lurraldeari. Errobi eta Adure edo Aturri (Kantauriar itsasoan itsasoratzen dena) ibaien elkargunean dago.



- **Azaroak 23 - UXUE – ZANGOZA – LEIREKO MONASTERIOA**

Uxue Erdi Aroko kutsua duen herria da. 815 metrora dago, izen bereko mendilerroan. Kale estuek harrizko etxeen labirintoa osatzen dute, eta malda nabarmenak behatoki ikusgarrietan amaitzen dira.



Uxueko Andre Mariaren eliza-gotorlekua Nafarroako Erdi Aroko arkitektura garrantzitsuenetako bat da.

Zangozako Andre Maria erreginaren eliza Monumentu Nazional izendatu zuten 1889. urtean. Atari ikusgarria du, Espainiako erromanikoko lan aipagarrienetako bat, eta bertan, azken epaiketa irudikatzen da.

Leodegarius, XII. mendeko maisu frantsesari agindu zitzaion beheko aldea, eta Chartresko katedraleko atarian oinarritu zen. Andre Mariak esku artean duen liburuan utzi zuen hark bere sinadura “Leodegarius me fecit”. Eta San Juan de la Peña maisua arduratu zen goiko aldeaz.

Mendilerroaren oinetan dago Leireko San Salbatore monasterioa. Monasterioaren inguruko paisaia naturalari begiratzea nahikoa da ulertzeko zergatik izan den errege-erreginen eta gotzainen babesleku historian zehar.



Behe Erdi Arokoa da, baina X. mendean erre egin zuten musulmanek; 1020. urtean Antso Gartziak berregiteko agindua eman zuen. XI. mendeko kripta da gorde den alderdirik zaharrena. Eraikin estua da, eta bertan pilatzen dira harrizko masak, altuera txikiko fusteekin eta kapitel trinkoekin; erromaniko arkaikoenaren soiltasunaren erakusgarri garbia da.

2.9. Musika eta Kantu tailerra

ARDURADUNA: Itziar Olaizola

2017. ekitaldian aurrera jarraitu dugu Musika eta Kantu Tailerrarekin, gure Elkarteko jardueratako bat baita. Iazko irakasle berberak eman ditu eskolak, Sara Varasek hain zuzen ere. Maila handiko irakaslea da, eta ezin hobeto helarazten digu musikari dion maitasuna eta zaletasuna.

Astelehenero ekartzen gara Musika Eskolan, Atotxan. Taldea asko handitu da parte hartzaile kopuruari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuz gero. Beti esan ohi den bezala, "ahoz ahokoa da ondoen funtzionatzen duena" eta halaxe gertatu da orain honetan ere.

Hainbat garaitako eta lekutako musikarekin zerikusia duten ezagutza berriak ikasten jarraitu dugu. Hainbat hizkuntzatan prestatu ditugu abestiak, eta erronka handia izan da hori parte hartzaile gehienentzat.



Lan horri buru emateko, Helduen Hitzako Zuzendaritza Batzordeak aukera eman digu gure adiskideen aurrean jarduteko. 2017ko maiatzean egin genuen 2016-17 ikasturte amaierako jarduera programaren barruan, Lugaritzeko Kultur Etxean, honako lan hauekin: ***Mononoke*** *(*japoniar abestia*),* ***Parte Vieja donostiarra*** (Pedro Ugalde), ***Hegoak ebaki banizkion*** (Mikel Laboa) eta ***Thula Thu*** (hegoafrikar abestia). 2017. urtearen amaiera eta 2017-18 ikasturteko lehenengo hiruhilekoaren amaiera ospatzeko, emanaldi bat eskaini genuen Aieten (Gurutzeaga parrokiko ekitaldi aretoa), oso errepertorio zabalarekin: ***Day-O, Jingle-Bell Rock****,* ***Doeba, Habanera*** eta, amaitzeko, ***Hator, hator****,* gabon kanta, bertan ziren guztiekin batera abestua.

Gure ahaleginek sari atsegina jaso zuten, hain zuzen ere, abesbatzaren kontzertura joandako guztien txaloak. Horiei esker, are ilusio handiagoarekin jarraituko dugu gure astelehenetako entseguetan, eta itxaropena dugu 2017-18 ikasturtearen amaieran emanaldi berriak eskaintzeko aukera izango dugula. Esan beharra daukagu zoratzen gaudela, baina ez bakarrik ikasten ari garelako eta Musika Eskolan ezin hobeto pasatzen dugulako, baizik eta gure elkarte Helduen Hitzari aukera ematen diogulako, besteak beste, ikasturte amaierako eta urte amaierako jai egitarauak egiteko.

2.10. Antzerki tailerra

***Arduraduna:* Lola Otero urria arte eta Joaquin Mendia ondoren**

Aurten, Antzerki Tailer hau 8 emakumek eta 2 gizonek osatu dute. Ohikoa denez, emakumeek gizonek baino interes handiagoa izan ohi dute. Hemendik aurrera gizonezkoak bultzatu eta animatu beharko dira modu aktiboagoan parte har dezaten jarduera honetan.



Aurten antzeztu dugun lana, “Arsénico por compasión “, 1941. urtean Broadwayn antzeztu zen amerikar komedia baten egokitzapena da. 1944an, Fran Caprak film bat e gin zuen Cary Grant, Peter Lorre, Priscilla Lanerekin… batera, eta aurretik inoiz izan ez den arrakasta lortu zuen. Azpimarratu beharra dago hura izan zela Cary Grantek zineman egindako lehenengo interpretazioa.

Zuzendaritzaren arduraduna, aurreko urteetan bezala, Marian Losada izan da. Bere zuzendaritza lana eta motibazio-animazioa handia izan da, espero bezalakoa. Talde handia osatzea lortu du, sendoa eta motibatua. Pazientzia funtsezko balioa dela erakutsi du uneoro.

Gure Tailerrak Helduen Hitzako bazkideen aurrean egin zuen lehenengo antzezpena, Lugaritzeko Kultur Etxean, 2016-17 Ikasturtearen amaiera ospatzeko. 2018ko urtarrilean Intxaurrondoko Kultur Aretoan antzeztu zen

berriro ere. Arrakasta handia eduki zuen ikusleei dagokionez. Txalo ugari jaso ziren, zintzoak, eta oso esker oneko agertu ziren lanaren interpreteak.

Aipatu beharra dago aurtengo emaitza onen ondorioz, dagoeneko kide berriak ditugula taldean, emakumezkoak noski.

Antzerkia jarduera ezin hobea da arima elikatzeko eta gazte eta ilusioz beterik egoteko.



Animatu zaitezte !!!!!



2.11. “HELDUEN HITZA -BERRIAK” aldizkaria

Aldizkaria egitearen batzorde arduraduna honako hauek osatu dute:
Arduraduna: Juan Ignacio Aizpurua urria bitartean, eta Andrés Acosta orain. Batzordea honako hauek osatzen dute gaur egun: Andrés Acosta, Juan Ignacio Aizpurua eta José Luis Gonzalez

Lan hori guztia hainbaten laguntzari esker egin ahal izan da:



- Bazkideak, beren ekarpenekin: edukiak eta argazkiak.
- Hainbat batzorde: informazioa eta argazkiak.
- Helduen Hitzako lehendakaritza eta Zuzendaritza Batzordea editorialekin eta beste artikulu batzuekin.
- Elkartearen azpiegitura guztia.

Eta, nola ez, aldizkaria osatzen duen taldearen lanari esker. Talde hori aldatu egin da urtean zehar, eta aurretik aipatutako hiru pertsonek osatzen dute gaur egun. 2017. urtean zehar, bi zenbaki argitaratu dira. Edukia zabaldu egin da, eta 16 orrialdekoa izatera iritsi da.

Gure eskerrik beroena aldizkaria hiru hilabetez behin kalera atera dadin era batera edo bestera laguntzen duten guztiei.

Aldizkaria asmo garbi batekin sortu zen, hain zuzen ere, bazkideen arteko komunikazio eta informaziorako bidea izatea, eta balantzea oso positiboa izaten ari da, egunetik egunera handitzen ari baita aldizkariarenganako interesa.

Jarduerak eta kezkak partekatzea eta Helduen Hitzaren bizitzaren berri emateko lokarria izatea da helburua, eta, era horretara, adiskidetasun lokarriak, harmonia eta bazkide guztien arteko harremanak estutzen laguntzea.

Aldizkaria postaz bidaltzen zaie bazkide guztiei, eta baita erakunde publikoei eta baita beren zeregina dela-eta Elkartearekin zerikusia duten beste Entitate batzuei ere.

2.12.- “HELDUEN HITZA” WEBGUNEA

2017. urte honetan gauzatu da Helduen Hitzaren webgune berria. Lan asko egin da garatzeko, froga eta ezarpen ugari egin dira, baina merezi izan du, eta horren erakusgarri da bazkideek gero eta gehiago erabiltzen dutela webgunea.

ZER ESKAINTZEN DIGU HELDUEN HITZAREN WEBGUNEAK?

1.- Elkartearen barruan eta kanpoan gure berri ematea, gai hauen inguruan:

- Nor garen, Non gauden, Zer egiten dugun eta Elkarteari eta bertako jarduerei buruzko ezagutza partekatzea

2.- Gure Elkartearen Egitura eta Antolamendua ezagutzea.

- Elkartearen estatutuak eta urteko Memoriak
- Bazkideen Batzarra, Zuzendaritza Batzordea, Lan Batzordea…
- Jardueretarako Lan Batzordeen Funtzionamendua

3.- Elkartearen jarduerei buruzko informazioa:

- Elkartearen egunerokoa: Jardueren egutegia
- Beste ekimen batzuen egutegia
- Lan Batzordeei buruzko informazioa

4.- Bazkide berri gisa izena ematea edo bestelako jardueretan matrikula egitea

5.- Helduen Hitzako Informazio Agiriak edukitzea: Elkartearen Estatutuak, “Helduen Hitza” Aldizkaria, Urteko Memoria, Irteera kulturalak eta bidaiak.

Webgunearen Batzorde arduraduna, honako hauek osatua: Arduraduna: Maria Sanchez eta laguntzaileak: Andrés Acosta eta Juan Ignacio Aizpurua eta batzordeen arduradunak: Ramón Leturiondo, Juan Mari Pérez, Eva Esnal, Marivi Osoro, Carmen García Viscarret, Antxon Alonso, Luis Felipe Hernández eta Mari Carmen Zubiaurre, webgunean informazioa egunera edukitzeaz arduratzen direnak. Horiei guztiei, gure eskerrik beroena asmo hau gauzatzeagatik, garrantzi handikoa baita gure Elkartearentzat.

2.13. V. Kontakizun Laburren Literatura Lehiaketa 2017

Arduraduna: Virginia Vera

"Helduen Hitza Berriak" gure Aldizkariaren 20. zenbakian argitaratu ziren **Helduen Hitza Berriak Kontakizun Laburren V. Lehiaketarako** deialdia eta oinarriak, lehiaketaren bi modalitateetan: euskara eta gaztelania. Liburu elektroniko bat eta akzesit bat izan zen bi modalitateetako lehenengo saria.

Lehiaketa saririk gabe gelditu zen euskarazko bertsioan eta honako hauek izan ziren gaztelaniazko bertsioetako sariak:

- 1. saria: ***" UN POCO DE MAGIA",* Javier García Aranda**
- 1. Akzesita: ***"SINFONIA DOMÉSTICA",* Emilio Cuadrado**
-
- 2. Akzesita: ***"EL HOMBRE DE LA PUERTA DEL SOL",* Javier Garcia Aranda**

Gure zorionik zintzoena irabazleei!!!

Sariak ikasturte amaierako festan banatu ziren, Lugaritzeko Kultur Etxean.

Aldizkariaren azken alean, 22. zenbakian, seigarren Lehiaketaren Oinarri berriak argitaratu ziren. Gure webgunearen ere argitaratu dira oinarri horiek: http://www.helduenhitza.com/

Aukera hau baliatzen dugu bazkideei animatzeko "burua nekatu" dezaten, idazten jarri eta aurkeztu ditzaten beren lanak, ez dadin modalitate bakar bat ere hutsik gelditu, batez ere euskarakoa, hori baita azken boladan aukera gutxien dituena. Halakorik gertatu ez dadin, gutxienez 10 lan aurkeztu behar dira bi modalitateetan, eta badakigu idazteko zaletasuna duen bat baino gehiago dagoela gure artean, beraz, Ekin lanari!!!

3. BESTE JARDUERA BATZUK

3.1. 2016-17 ikasturtearen amaiera eta 2017. urtearen amaiera


Helduen Hitzaren funtzionamendua eta antolamendua dela-eta, urte bateko urritik hurrengo urtearen ekainera bitartean, bi amaiera ditugu: *ikasturte amaiera* maiatzaren amaieran eta ekaina hasieran eta urte amaieran, abenduaren bukaeran, *itxiera administratiboa*.

2016-17 **ikasturtearen amaierari** dagokionez, honako ekimen hauek egin ziren:

- 2017ko maiatzaren 25ean: Lugaritzeko Kultur Etxean

  - *Helduen Hitzako Abesbatzaren* emanaldian (Musika eta Kantuko Tailerra), Sara Varasen zuzendaritzapean, hainbat abesti eskaini zizkiguten, gure atseginerako: (***Mononoke***, japonieraz), aire afrikarrak (***Thula Thu***, afrikarra), ***Contaminame*** (latinoamerikarra), eta, nola ez, ezagunenak eta hurbilekoenak (***Parte Vieja Donostiarra*** eta ***Hegoak ebaki banizkion***), eta... propina bat. Txalo bero bat taldearen zuzendariari.





- *Helduen Hitza Kontakizun Laburren V. Lehiaketa:* 1. Saria gaztelaniaz: "*Un poco de magia"* **Javier García Aranda** bazkidearena, eta bi akzesit gaztelaniaz: *"Sinfonia doméstica"* **Emilio Cuadrado** bazkidearena eta bigarrena: " *El hombre de la Puerta del Sol* "**Javier García Aranda** bazkidearena; euskarazkoa hutsik gelditu zen, ez zegoelako parte hartzailerik.

- Helduen Hitzaren Antzerki Tailerrak lan hau antzeztu zuen: *"Arsénico por compasión"* (xxxx), Marian Losadaren zuzendaritzarekin eta egokitzapenarekin (bera da taldearen zuzendaria). Emanaldiaren aurretik Ekitaldi Aretoa bete egin zen. Txalo bero bat taldearen zuzendariari.



Ikasturte amaiera izugarria izan zen; asko gozatu genuen eta denbora izan genuen elkarren artean iritziak trukatzeko eta elkar ezagutzeko. Oso iritzi ona izan genuen eta berriro errepikatzeko erabakia hartu genuen.

Jardunaldia amaitzeko, ohiko anaitasun bazkaria egin genuen "Ondarretako Tenis Klubeko" Jatetxean, bazkideentzat.

2017. urtearen amaierari dagokionez, honako ekitaldi hauek egin ziren:

- <u>2017ko abenduak 20, asteazkena:</u>



- Enrique Cercadillok, *José Angel Buesaren "Los viejos estorban"*, *" Poema de la culpa"* eta Federico García Lorcaren *"La Casada infiel*" lanen bitartez, egileen sentimenduak helarazi zizkigun. Oso ongi Enrique!!!

- Elkartearen ***Helduen Hitza Abesbatzaren*** kontzertuak, Sara Varasen zuzendaritzapean, Gurutziagako Parrokiaren Ekitaldi Aretoan (Aiete). Aurreko saioetan gertatu bezala, txalo ugari jaso zituen.

Abesbatzaren emanaldia amaitu eta gero, aurretik ospatu genuen Santo Tomas eguna txistorrarekin, patata tortilarekin, edariekin… giro onean eta festa zoriontsuak eta urte berri zoriontsua opa zizkiguten.



Laburbilduz, urte aberats eta positiboa izan dela esan dezakegu, jai giroko emanaldiekin eta atsegin hartzeko aukera ugarirekin.

3.6. 2017-18 ikasturteari hasiera emateko ekitaldia

LUGARITZ KEn, 2017ko urriaren 10ean, bazkide ugari bertan zirela, 2017-18 ikasturteari hasiera emateko ekitaldia egin zen, Juan Ignacio Aizpuruaren sarrera labur baten ondoren.

2017 – 2018 ikasturte inauguratu zen –eta dagoeneko klasiko bat-, Juanjo Alvarez hizlariaren aurkezpenarekin. Oraingo honetan *Europa en la encrucijada. A dónde va Europa?* gaia hautatu zen horretarako.

Lehenik adierazi zuen Europar Batzordea Frantziaren eta Alemaniaren arteko konfiantzarik eza abiaburu hartuta sortu zela. Beste alde batetik, Europar Konstituzio bat ezartzeko ahaleginak porrot egin zuen, Frantziaren eta Herbehereen erreferendumaren ondorezko gaitzespenaren ondoren. Jean Claude Junkers Batzordeko Lehendakariak berak onartu zuen ("europar gobernua" deituko genuena) Europa herritarrei bizkar emanez eraikitzen ari zela. Horrez gainera, gauza argia dirudi ezinezkoa dela Europa sozial bat fiskalitate bateraturik gabe. Azkenik, eztabaidaezina da Europan ez duela ez Parlamentuak ez Batzordeak agintzen, Kontseiluak baizik, hau da, parte hartzen duten 27 estatuek; erabaki garrantzitsuetarako 27 kideen aho baterako onespena behar da, eta horrek gogogabetu egiten du kontsentsua lortzeko eskakizuna.

Inondik ere pozgarria ez den panorama horren aurrean, Batzordeko Lehendakariak "Liburu Zuri" bat erredaktatu zuen, zeinetan agertzen den etorkizuneko Europan gerta litezkeen bost eszenatoki: horietako bi europar proiektuan aurrera egiteko eta beste hiru atzera egiteko. Bost eszenatoki horien artetik, gertagarriena, hizlariaren iritziz, Europa asimetrikoarena da, bi abiadurako Europa deituarena, alegia. Eszenatoki horretan europar batasunaren bidetik gehien aurreratu nahi duten herrialdeek horrela jarduteko aukera izango dute, besteek beto eskubidea aplikatzeko aukerarik eduki gabe, "nik ez dizut inposatzen, zuk ez didazu eragozten". Lisboako Itunaz geroztik (2010), filosofia hori baliatzen ari da hainbat gaitan, hala nola, ezkontza homosexuala, dibortzioa, haurdunaldi subrogatua, etab. zenbait gaitan legedi berri bat onartzeko nahikoa baita estatuen herenak babestea (hau da, 9 estatu).



Bi abiaduraren ideia hori ondorengo beste hitzaldi batean ere agertu zen, hain zuzen ere "Euroaren etorkizuna" gaiari buruzkoan (Okendon, José Ramón Mariño), zeinetan iradoki zen beste txanponen aurrean bestelako kotizazioa eta kanbio fluktuazioaren urkila edukiko zuten bi dibisen (bi "euro") arteko elkarbizitza.

4. HARREMANAK UDALAREKIN

4.1. +55 Programa

Helduen Hitzako bulegoa Donostia +55 programaren María Fernández Ezeiza Arduradunaren bulegotik oso gertu egotea, dozena erdi bat urrats baino ez, izugarrizko luxua da guretzat: aholkularitza gai jakinetan, kontsultak, aholkuak, orientazioa, eskaerak... eta denek izaten dute berehalako erantzuna. Era berean, garrantzi handikoa iruditzen zaigu "entzutearen" gaia, nahiz eta arazoak edo gatazkak konponbiderik ez eduki. Eskerrik asko María, zure adeitasunagatik eta arretagatik, zure aholkuengatik, erantzunengatik...

4.2. Donostiako Udal Kontseilu Sektoriala: Gizarte Ekintza

*"**Udal Kontseilu Sektorialak** partaidetza organoak dira, ezaugarri, helburu eta funtzio bereziekin". "Beste hainbat neurriren artean, Kontseiluen barne kudeaketa organoan herritarren erakundeen ordezkariak egongo dira, eta partaidetza hori eragile horiek ahalduntzeko aukeratzat hartuko da". "... udal politikaren eremu zehatz bateko gaiei buruzko aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak egiteko eremu gisa osatuta daude".* (2015eko apirilaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Esan beharra dago bi Kontseilu Sektorialetako jarduera, Gizarte Ekintza eta Mugikortasuna hain zuzen ere, ez dela oso emankorra izaten ari orain arte. Denbora asko pasa zen guk kontseilu horietan genuen partaidetza onartzeko. Bi urteren ondoren, Gizarte Ekintzako Kontseiluaren 4 saio egin dira eta Mugikortasunaren 2 (guztiak aurreko urtean). Honako hauek izan dira horietan parte hartu dutenak:

Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektoriala: *Julia Arrieta*

Adinekoek erakunde publikoetan –gure hiriko Udalean batez ere– duten partaidetzan laguntzeko ahaleginean, Helduen Hitza elkartea Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektorialean parte hartzen ari da, beste hainbat jarduerarekin batera.

Kontseilu hori 2001. urtean jarri zen abian, baina 2015eko martxoaren 26an araudi berri bat onartu zen, eta horixe da gaur egun indarrean dagoena.

Hiru hilabetez behin izaten dira bilerak, eta urtean zehar Gizarte Zerbitzuen bitartez egiten diren gastuen txosten bat aurkezten da, eta baita hurrengo urterako osatzen diren aurrekontuak ere. Azken bilera abenduaren 19an egin zen, Udaleko arduradunek 2018. urterako aurrekontuen berri eman zuen, eta baita gizarte ongizatearen alde lan egiten duten erakundeak babesteko irizpideen berri ere.

Pentsatzen dugu gure ekarpena informazioa jasotzeko baino ez dela, eta Zuzendaritza Batzordeak baloratu beharko du Kontseilu horretan dugun parte hartzea, Elkartean sortzen diren lan premien arabera.

5. LANKIDETZA BESTE ERAKUNDE ETA ORGANIZAZIOEKIN

5.1. Gure gidak SAN TELMO MUSEOAN

Elkartearen jardueren barruan, Helduen Hitzako bazkideak borondatezko gidak izan dira, beste urte batez, 55 urtetik gorako pertsonentzat. **Arrate Pérez, Juan Mari Pérez, Juan Ignacio Aizpurua, Ramón Leturiondo eta Maria Sanchez** izan dira gure gidak.

Museoak emandako prestakuntzaren ondoren, 64 talderen bisitak gidatu dituzte. Museoaren beraren Memorian adierazten den bezala, 654 lagun izan dira guztira.

Asteartetan sarrera doakoa izanik, 11.00etatik 12.30era Bilduma Iraunkorraren edukiak azaldu zaizkie aurretik hitzartutako taldeei, eta horiekin batera, banakako bisitariak ere sartu ahal izan dira. Goizetan lehentasuna dute mugikortasun mugatuko taldeek (baina ez dira horiek bakarrik sartzen), Egoitzak, Klubak, Kultura Elkarteak, Irteerak... Nahi adina asteartez joateko aukera dago, Harrerako doako sarrerarekin, betiere. 2013. urtean zaharberritutako museoari buruzko iritzia, oro har, hobetu egin da azken urteetan, eta giden azalpenekin bisita asko aberasten dela adierazi dute gehienek. Uztaila, Abuztua eta Irailean ez dago doako bisita gidaturik. Masifikaziorik egon ez dadin, eta gida prest egoteko helburuarekin, aurretik erreserba egitea gomendatzen du Museoak, 943 48 15 61 telefono zenbakian (asteartetik ostiralera). Erreserban adierazten da zer partetan egingo den 90 minutuko bisita:



- Beheko solairua: **Bertako historia, Sert, Historiaurretik XVIII. mendera Euskal Herrian. Bildumak, Espiritualtasun ikurrak, Arrastoak Memorian.** Gida: *Arrate Pérez.*

- Lehenengo solairua: **XIX. eta XX. mendeak, modernotasuna, baserri eta landa eremua, Trantsizioa Euskal Herrian.** Gida: *Juan Mari Pérez.*



- **Industrializazioa Euskal Herrian**. Gida: *Juan Ignacio Aizpurua.*





- Lehenengo eta bigarren solairuak: **Pintura eta Arte Bilduma, eta Euskal Artearen 100 urte, XIX. eta XX. mendeak**. Gida: *Ramón Leturiondo.*

Nahi duen edonork du bisitari gisa museoa ezagutzeko aukera zein 55 urtetik gorakoentzat San Telmo Museoko Kultura gida izateko aukera.

5.2. EHUko Udako Ikastaroak

Beste urte batez, 2017ko uztailaren 10ean, 11n eta 12an, Miramar Jauregian, udako ikastaroaren antolamenduaren barruan Adinekoei urtero eskaini ohi zaien ikastaroan parte hartu zuten hamabost bazkidek. Aurtengo leloa IKASKUNTZARAKO GIZARTE MUGIMENDUA ETA GIZARTE ERALDAKETA ZUZENTASUNEZ EAEn. Elkarteak diruz lagundu zien, % 50 ordainduta, ikastaroan parte hartu zutenei.

Antonio Camposek, HELDUAK ADI elkartearen izenean ongi etorria eman zien bertara hurbildutako laurogeita hamar lagunei; ARABA, GIPUZKOA eta BIZKAIKO kideek parte hartu zuten bertan.

Hitzaldiak gai askori buruzkoak izan ziren, eta hona hemen zenbait, horren erakusgarri:

- Euskal gizartearen erronkak 2020ko zerumugan, Juan Ignacio Perez Iglesias.
- Adinekoen elkarteen jabekuntza EAEko gizarte politikan jarduteko. Imanol Zubero Beaskoetxea.
- Gizarte Politikaren estrategiak EAEko biztanleriaren zahartzearen inguruan, gobernantza ereduaren esparruan. Lide Amilibia Bergaretxe
- Pertsonaren garapen erabatekoa ikaskuntza proiektuak definitzeko heldutasun aroan. Xabier Garagorri Yarza
- Emakumeen errebindikazioak Europan. Mª Angeles Durán Herás
- Etika eta tratu egokia adinekoi. Tratu onerako irizpideak eta oinarri etikoak, adinekoen duintasunaren eta balioaren ezagutzatik abiatuta. Marije Goikoetxea Iturregi.
- Hiri lagunkoiak: Taldeko ikaskuntzarako aukera. Donostiaren esperientzia. Eva Salaverria Artano

- Etengabeko ikaskuntzaren eskubidetik nagitasunera. Esperientziaren gelen iragana eta etorkizuna. Josu Chueca.
- Araudi berriaren aplikazioa adinekoen partaidetzarako Gipuzkoan: sare lanaren aitorpena
- Partaidetza “Cum Jubilo Abesbatza” adinekoen abesbatzan.

Liburu bat argitaratu zen hitzaldi guztiekin, eta parte hartzaileei eman zitzaien. Gure aldetik, gogoetarako egokia den eta interes soziala duen hurrengo topaketan parte hartzeko gonbita egiten diegu Helduen Hitzako kideei.

5.3 Boluntarioak

2011. urteaz geroztik ohikoa denez, 2017ko abenduaren 1ean eta 2an Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Gabonetarako “Elikagaien Bilketa Handia” deitu ohi duguna antolatu zen.

Aurten, bigarrenez, elikagaiak zuzenean emateaz gainera, janari bonoen bitartez donazioak egiteko aukera egon da; era horretara, saihestu egiten da elikagaiak bildu, garraiatu eta sailkatu beharra.

Bonoen inplementazioaren bitartez, erraztu egiten da elikagai stocken kontrola eta mantenimendua, izan ere, produktu jakin bat egoera kritikoa dagoenean, stocka erabiltzeko aukera baitago.

Kanpaina hau “kanpaina guztien ama da”, Elikagai Bankuan sartzen diren elikagai ez galkorren bizkarrezurra, horregatik du horrenbesteko garrantzia.

Urtero urte garai horretan egin ohi denez, Helduen Hitzako bazkideak mugitu egin dira laguntzeko, bai elikagaiak biltzen bai antolatzen, solidaritate eta eskuzabaltasunez, eta horrek goratu egin du boluntario horien lana; Helduen Hitza harro dago bere bazkideen artean giza kalitate handiko pertsonak dituelako. Gipuzkoako Elikagaien Bankuak bihotzez eskertu die pertsona horiei guztiei musu truk emandako laguntza.



Eguraldi txarra zela eta,

erosle asko ez ziren saltoki handietara joan erosketak egitera, eta horren ondorioz, ez zen handitu bildutako elikagaien bolumena 2016. urtekoarekin konparatuta, eta egin ziren kalkuluen oso azpitikoak izan ziren.

Hona hemen azken urteotan izan den bilakaera:

2011. urtea 42.000 kg.

2012. urtea 104.388 kg.

2013ko Bilketa Handia 350.000 kg.

2014ko Bilketa Handia 575.000 kg.

2015eko Bilketa Handia 638.155 kg.

2016ko Bilketa Handia 663.470 kg: 448.965 kg. eta 214.505 bono.

2017ko Bilketa Handia 663.974 kg.: 414.695 kg. eta 249.279 bono.

Aipatzekoa da, adineko emakume batek elikagaiz betetako lau orga bete eman zituela, eta eskerrak emateko astirik eman gabe joan zela, lasai-lasai. Eskuzabaltasuna da hori, inondik ere.

6. ONDORIOAK

- Berriro ere esan behar dugu Helduen Hitza elkartean hazten ari dela etengabe, eta horrek aditzera ematen du 55 urtetik gorakoek interesa dutela elkartean.

- Parentesi baten ondoren, 2017an V. Literatura Lehiaketa egin ahal izan zen, nahiz eta gaztelaniaz baino ezin izan zen egin, ez baitzen euskarazko lanik aurkeztu.

- *Musika eta Kantua Tailerra* eta *Antzerki Tailerra* sendotzen ari dira, eta Elkartearentzat garrantzizko eragilea bihurtu dira, ikasturte amaierako eta Gabonetako jardueren oinarri nagusia baitira. Eskerrak denei.

- *Euskara eskolak,* elkarteko irakasleak eta ikasleak, ahalegin handiarekin eta boluntario gehiagorekin aurrera jarraitzen dute. Horiei ere eskerrik asko.

- *Ibilaldi osasungarriek* erritmo onean jarraitu dute, 5 irteera egin dira guztira, eta berriro ere urte amaierako bidaia egin da, Alsaziara oraingoan; Europara

bidaiatu dugu. Lorpen handia. Eskerrak eman behar dizkiegu hori posible egin dutenei.

- *San Telmo Museoarekin lankidetza* jarduera ere sendotu egin da: lau bazkidek astero, asteartetan, gida lanak egiten dituzte adinekoentzako doako bisitetan.

- Dagoeneko sendotasuna duten gainerako jarduerek eutsi egin diote edo parte hartzaile kopurua handitu dute: *Hitzaldiak, Mendi ibiliak, Ostegunetako Forua, "Helduen Hitza Berriak" Aldizkari buletina, Hitzaldiak-Tertulia euskaraz* eta *Literatura Tertulia.*

- Jardueraj antolatzeko eta aurrera eramateko Lan Batzordeek oso ondo funtzionatu dute. Emaitzak nabarmenak dira, Memoria honetan ikusten denez.

- Eutsi egin diogu Udalarekin dugun harremanari, dagokion atalean egiaztatu daitekeen bezala: Lagunkoia europar programa, *Gizarte Ekintza eta Mugikortasuna* Kontseilu Sektorialean parte hartzea, +55 programa… Harreman hori sendotzen ari da, ikus daitekeenez, "aintzakotzat hartzen gaituzte" eta guk haiek ere bai. Edonola ere, hobetu litekeen harremana dela pentsatzen dugu.

- 2017. urtea Helduen Hitzarentzat WEBgune interaktibo eta funtzional bat garatzeko eta inplementatzeko urtea izan da. Gero eta bazkide gehiagok erabiltzen dute eta asebetetze maila handia du.

- Era berean, Zuzendaritza Batzordean izan den aldaketa aipatu nahi dugu, 10 kidetik 8 aldatu dira. Ez da erraza izan erantzukizun hori bere gain hartuko duten pertsonak aurkitzea, baina emaitza ona izan da, talde ona osatu da, eta elkartearen alde kudeaketa egokia egingo duten itxaropena dugu.

- Ondorio orokor gisa: 2017. urtea urte ona izan da Helduen Hitza elkartearentzat.

- Bazkide guztiek elkartearen funtzionamenduan eta mantentze lanetan laguntzeko eta parte hartzeko beren burua aurkeztuko duzuela espero dugu.

7.- ESKERTZAK

- Gure bazkideei gogotsu parte hartzen dutelako Elkarteak antolatzen dituen jardueretan.

- Lan Batzordeetako arduradunei eta kideei, horiei esker antolatzen eta gauzatzen direlako elkartearen jarduerak.

- Zuzendaritza Batzordeko kideei, beren lanari eta dedikazioari esker Helduen Hitzak aurrera jarraitu eta funtzionatzen duelako.

- *Mertxe Berasain* gure "ordezko idazkariari", Topalekuko bulegoan egiten duen eguneroko lanagatik, izan ere, lan horri esker Helduen Hitzak aurrera jarraitzen du eta bazkide berriak elkartean integratzen dira eta erantzuna izaten dute beren eskaerek.

- Isilean lan txikiak egiten dituztenei, lan handiak bezain beharrezkoak baitira.

- Beren ahalegina, denbora eta ilusioa eskaintzen dutenei, gure hizkuntza, euskara, ikasi nahi dutenek laguntza izan dezaten beren ikaskuntza prozesuan. Eskerrik asko irakasle guztiei.

- Gure hiriko Udalari, gure Elkartearen kudeaketarako eta gure hainbat jarduera egiteko lokalak uzten dizkigulako.

- *Jose Mari Albisuri,* modu positiboan, isilean eta pazientzia handiarekin konpontzen dituelako gure premiak, beti egin duen bezala. Bere irribarrearekin, gure jarduerek tarte egokiak izan ditzaten lortzen duelako eta behar diren baliabide guztiak bilatzen dituelako. Mila esker, Jose Mari

- Eskerrak Topalekuko langile guztiei, gurekin duten tratuagatik.

- Eskerrak +55eko Mariari, bere aholkularitza eta laguntzagatik. Baita bere laguntza isil baina aktiboagatik ere.

- Eskerrak gure hiriko Kultur Etxeei (Okendo, Aiete eta Lugaritz) beren lokalak erabiltzen uzten digutelako eta hurbileko arreta eskaintzen digutelako horren beharra dugunean jarduerak aurrera eramateko.

- Eta barkamena eskatzen dugu norbait aipatu gabe gelditu bada. Helduen Hitzaren jarduera gutxienez gure eskerrik beroena jasotzen dutenei esker da posible.